


hh
hik hasi

Libe Goñi Garate
Hamar egun pantailarik gabe
Ikaskuntza kooperatiboa
Autismoaren espektro-nahasmenak
Barnekotasuna. Jesus Maria Mata
Zergatik eta nola eutsi Filosofiari?
Zuraide Telletxea Zubeldia

4
CO
N



EUSKALDUN ANITZAK



Oraindik garaiz delako!



AURKIBIDEA

GAIA / 10

EUSKARARA ETORRIAK

Hogei urte igaro dira Espainiaz haragoko atzerrietatik ikasleak etortzen hasi zirenetik. %1ekoa zen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako jatorri atzerritarreko haurren kopurua orduan. Gaur, %11. Benetako erronka ikasle horiek ere ongi euskalduntzea da. MUko HUEZI fakultateak jardunaldiak egin ditu gaiaren inguruan abenduaren 17an, 'Etorkinen seme-alabak eta euskara, 20 urteko esperientzien ahotsa' izenburupean.

ELKARRIZKETA / 18

LIBE GOÑI GARATE

Seaskako lehen andereñoa izan zen Libe Goñi Garate eta ikastolei lotua izan da bizi osoan. Ikastolak iraultza handia izan dira bere ustez, eta ezinbestekoak izan dira Iparraldean euskara eta euskal nortasuna suspertzeko. Irakasle lanak utzi ez, eta gaur egun reikia eta gorputza sendatzeko eta indartzeko ariketak irakasten aritzen da Goñi. Liburua ere argitaratu du aurten: 'Har 3 minutu zuretako'.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPIZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Ainhoa Azpirotz, Ainara Gorostitzu, Olatz Lasagabaster.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe

Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx eta Xabier Tapia.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANTZA S.A.L Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2021-12-17).

Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko edukiak baliatu eta zabaldu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta soilik baldintza beretan eginez gero. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Euskarazko eredu orokortua, ikasleen eta bizikidetzaren mesedetan

10 GAI NAGUSIA

Etorkinen seme-alabak eta euskara

18 ELKARRIZKETA

LIBE GOÑI GARATE

"Ikastola iraultza handia izan da niretzat"

24 ESPERIENTZIAK

Hamar egun pantailarik gabe

26 EKARPENAK

Ikaskuntza kooperatiboa

30 EKARPENAK

Autismoaren espektro-nahasmak

34 AHALDUNTZE ESKOLA

Jesus Maria Mata: "Munduak irtenbidea izango du hezitzaileak zaintzen baditugu"

36 GALDEIDAZU

Zergatik eta nola eutsi Filosofiari LHn, DBHn eta Batxilergoan?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

'Baginen bagara' erakusketa

42 ATZEKO ATETIK

Zuraide Telletxea Zubeldia



Euskarazko eredu orokortua, ikasleen eta bizikidetzaren mesedetan

editoriala

MUNTA HANDIKO AGERRALDIA EGIN DUTE KONTSEILUAK, IKASTOLEN ELKARTEAK, EHIGEK, **HIK HASIK**, KRISTAU ESKOLEK, HEIZEK, ELAK, LABEK ETA STEILASEK, EUSKARAZKO EREDU OROKORTUAREN ALDE.

Euskaldunduko badu, eskolak euskalduna behar du izan. Eragileek argi daukate, eta beste alor batzuetan izan ditzaketen zailtasunak alde batera utzita, bat etorri dira: hezkuntzak eredu bakarria behar du, euskarazkoa. Ez A, ez B, ez D. Hezkuntza eragile nagusiek argi daukate ikasle guztiei euskara gaitasun egokia bermatuko dien eredu bakarria orokortu behar dela, hori izango delako benetan euskaldunduko duena, eta harago, bizikidetzaren bermatuko duena. Eskaria pausatutako diete eragileek politikariei, hezkuntza hitzarmenean “berariaz” jaso dezatela hurrengo Hezkuntza Legeak “ereduen sistema baztertzaileria” gaindituko duela, eta “ikasle guztiei euskara gaitasun egokia bermatuko dien eredu orokortua” ezarriko dela.

Guztia behar du euskaraz eta guztia behar du bizikidetzak. Euskaraz ongi ikastea behar dute ikasle guztiek, eta zer esanik ez testuinguru naturalan euskarazko erreferentziarik ez duten edo gutxi duten ikasleen kasuan. Eragileek abenduaren 16an Gasteizen sinatutakoa berretsi zuen hurrengo egunean Eskoriatzako jardunaldietan ikasle etorkinek eurek esandakoak: gaur egun eskola ez da aski ikasle erdaldunak euskalduntzeko, eta are gutxiago autoktonoak ez diren eta bestelako egoera zaurgarriak dituztenak euskalduntzeko. Adituak ere bat datoz: ikasle guztiei bermatu behar zaie euskaraz ongi ikasteko eskubidea; hasteko, euren



ibilbide akademikoagatik, eskolak eskaintzen dizkieten aukera guztiak baliatzeko beharrezko dute hizkuntza ongi menderatzea; eta bigarrenik, bizikidetzagatik, ikasle guztiek behar dituzte irteera-aukera berdinak.

Erabaki politiko hori gauzatzeko, baliabide teknikoak behar dira, bistan denez. Baina erabakia, lehenik eta behin politikoa da. Bigarren urrats teknikorako ez da alferrekoa izango azken hogeitun urteetan euskal herrietako irakasle bide-urratzaileek etorkinen seme-alabak euskalduntzen eta hezten egindako lana, sortutako materialak eta didaktikak. Ezta Kontseiluak berak ere 2008an ondu zuen *Ikasle euskaldun eleaniztunak sortzen* proposamena ere. Orain inoiz baino argiago, proposamen horren hiru ardatzak jorratzeko unea da: lehenik, ikasketa prozesuko hizkuntzen ordu banaketan euskaraz izan behar du ardatz, alegia, euskararen murgiltzea eta mantentzea eman behar da. Bigarrenik, hizkuntza-proiektua izan behar da zutabe ikastetxeetan. Eta hirugarrenik, ikasleen B2 maila egiaztatzen dutela ebaluatzeko zein bide erabiliko den zehazten da.

Ez soilik euskaragatik, bizikidetzagatik eta gizarte kohesioagatik, ikasle guztiei, edozein jatorri sozial, linguistiko edo ingurune duelarik ere, sistemak bermatu behar dio euskararen gaitasun egokia lortuko duela. Orain borondate politikoa erakusteko ordua da, horrek ekarri behar ditu baliabide tekniko eta humanoak.

“Aitortu al litezke Konstituzio baten aurkakotzat geometria edo aljebra? Agerian dago ezetz; bada, murgilketa ere ez! Murgilketa hizkuntzak ikasteko metodoa da eta azterketa zientifikoetan oinarrituta dago, linguistikoak, gramatikalak, psikologikoak eta sozialak”

Patxi Zabaleta

HILEKO IRUDIA





ADOSTASUN HISTORIKOA EUSKARA OROKORTZEKO

“Hemen bildu garen eragileok eskatzen dugu hezkuntza-hitzarmenean berariaz jaso dadila hurrengo legeak ereduaren sistema baztertzaileria gainditu eta ikasle guztiei euskara gaitasun egokia bermatuko dien eredu orokortua ezarriko dela”. Horra EA Erako Hezkuntza Lege Berriaren aurrean ezarri beharreko marra gorria.

Euskaraz hezi, berdintasunean hazi adierazpena aurkeztu zuten Kontseiluak, hainbat hezkuntza eragilek eta sindikatuk, Hezkuntza Lege berriari “eredu sistema baztertzaileria gainditu” eta ikasle guztiei euskara “gaitasun egokia” bermatuko dien eredu orokortu, bakar eta inklusiboa ezartzeko. Zehazki, Kontseiluak, Ikastolen Elkar- teak, EHIGEK, Kristau Eskolek, EHIZEK eta **Hik Hasik** eta ELA, LAB eta Steilas sindikatuek izenpetu dute agiria.

Eskatzetik harago, eragiteko konpromisoa ere hartu zuten adierazpena izenpetu zuten eragileek. Hezkuntza legearen inguruan parte hartzen duten foroetan edota egiten dituzten harremanetan “eskaera defendatzeko” konpromisoa hartu dute guztiek, “ereduaren sistema segregatzailetik euskarazko eredu orokortu inklusibora jauzia egiteko unea” dela nabarmendu zuten.

Argazkia: Euskaingintzaren Kontseilua
Gasteizen, 2021eko abenduaren 16an

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

HEZKUNTZA HITZARMENA ZEHAZTEKO LANTALDEAK 90 ERAGILE ENTZUN DITU

EAJk, EH Bilduk eta PSE-EEk proposatu zuten EAEko Hezkuntza Lege Berriaren aurreko hitzarmena josteko batzorde txostengilea eratzea, eta IU-Podemosen baietzarekin, hasi zen akordio zabal bati begira ergileen ekarpenak jasotzen. Abenduaren 22an bukatu dira agerraldiak eta orotara 90 eragile entzun dituzte, tartean **Hik Hasiren** Hezkuntza Proposamenaren igurukoak (argazkian). Anitzak izan dira etorkizuneko euskal hezkuntza sistemari buruzko hitzarmenaren oinarriak zehazteko lantaldeak hartu dituen agerraldiak, besteak beste, Euskadiko Eskola kontseiluak, Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak, Soziolinguistika klusterrak, Eusko Ikaskuntzak, Olaso Dorrea fundazioak, Ikamak, Euskadiko Gazte kontseiluak, hainbat udal eta ikastetxek, *Gure platera, gure aukera* plataformak, EHIGEk, Ikastolen Elkarteak edota Kristau eskolak azaldu dute euren ikuspuntua.



FRANTZIAKO HEZKUNTZA MINISTERIOAK MURGILTZE IRAKASKUNTZA ARAUTU DU

Frantziako Hezkuntza Ministerioak Eskualdeko Hizkuntzen eta Kulturen Irakaskuntzari Buruzko Zirkularra publikatu du aldizkari ofizialean, eta hizkuntza gutxituen murgiltze irakaskuntza arautzen du. Dokumentu administratiboak ikastetxeen esku uzten du ikasitako hizkuntza bakoitzari eskainitako denbora, eta dio «posible» dela «murgiltze metodoa» erabiltzea. Frantsesaren eta hizkuntza gutxituaren «maila bereko ezagutza» jarri ditu baldintza gisa, eta «ebaluazio osagarriak» eginen dituztela iragarri du. Baxoan ikasgai batzuk euskaraz pasatzeko aukera aipatu du. Frantziako Konstituzio Kontseiluak hizkuntza gutxituen irakaskuntzaren kontra hartutako ebazpenari erantzuten dio dokumentuak, baina ez du erabakiak sortutako ziurgabetasun juridikoa konponduko.

HEZKUNTZA ARLOKO 1.856 LANPOSTU ESKAINTZEA ONARTU DU JAURLARITZAK

Behin-behinekotasuna murrizteko, hainbat egonkortze-prozesu abian jarriko dira urte berriarekin, Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak hala erabakita. Horrenbestez, Hezkuntza administrazioari dagokionez 1.856 lanpostu eskaintza onartu zuen. 1.216 lanpostuko enplegu eskaintza publiko irakasle kidegorentzat izango dira, eta 640 lanpostu eskaintzeko konpromisoa hartu zuen beste hainbat lan kategoriarentzat.

NAFARROAN, "TERRORISMOAREN" UNITATE DIDAKTIKOAK IKASGAI IZANEN DIRA

Espainiako Gobernuak Hezkuntza eta Barne ministerioek gida bat landu dute Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroarekin eta Terrorismoaren Biktimen Fundazioarekin batera, Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan landuko diren zazpi unitate didaktikoak zehazteko. Fernando Grande-Marlaskak, Pilar Alegria Espainiako Hezkuntza ministroak eta Maria Txibitek aurkeztu zituzten.

HIZPIDE IZANGO DA

TXILLARDEGI OMENDUKO DUTE DONOSTIAN, HIL ZENeko 10. URTEURRENEAN

Urtarrilaren 14an hamar urte beteko dira Jose Luis Alvarez *Txillardeg*i hizkuntzalari, idazle eta politikaria hil zenetik, eta haren omenezko hainbat ekitaldi egingo dituzte Donostian. Urtarrilaren 11n, Txillardegik hizkuntza politikaren inguruan egindako gogoetez arituko dira Alaitz Aizpuru *Jakin*-eko kidea eta Iñigo Urrutia EHUko irakaslea, TM eLab Euskal Herrigintza laborategiko Txillardegi Gogoeta Guneak antolatuta. Leku horretan bertan, urtarrilaren 13an, *Kronika* liburua aurkeztuko dute, Txillardegik bere garaian *Argia* aldizkarian egindako kroniketan oinarritutakoa. Koldo Izagirre eta Juan Luis Zabala idazleak, Garbiñe Ubeda Euskal Idazleen Elkarteko lehendakaria eta Gorka Bereziartua *Argia*-ko kazetaria ariko dira hizlari. Urtarrilaren 18an, *Jakin*-ek *Txillardeg*i: *Euska*lgintza eta *Txillardeg*i: *intelektuala eta gizartea* liburua aurkeztuko ditu. Urtarrilaren 15ean Antigua auzoan omenduko dute.



KALEAN DA EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGO BERRIA

Sailka zein adinka aurkeztuta, 0-16 urte bitarteko haurrei zuzendutako euskarazko produktuak biltzen ditu www.katalogoa.eus webguneak, eta paperean ere argitaratzen da. Gero eta produktu gehiago egiten dira euskaraz, eta horien aukeraketa bat da katalogo horretan bildu dutena, hala nola, jostailu eta jokoak, musika, DVD filmak, App-ak, aldizkariak, liburuak, gurasoentzako materiala eta komikiak jaso dituzte bertan.

Webgunea urte osoan zehar eguneratzen dute. Bertan badago aukera buletinean harpidetzeko eta nobedadeen berri izateko e-posta bidez. Facebook bidez ere jaso daiteke egitasmoaren berri. Euskarazko Produktuen Katalogoa 1998. urtean argitaratu zen lehendabiziko aldiz, Nafarroako hainbat udalen ekimenez.

ZABALIK DAGO EUSKARABENTURAN IZENA EMATEKO EPEA

Euskarabenturak bere laugarren aldia izanen du 2022an, eta jadanik badago bertan parte hartzeko izena emateko aukera, martxoaren 4ra arte. 16 eta 17 urteko gazteak deitu dituzte espedizioan parte hartzera. Hala, 2005ean edo 2006an jaiotakoek dute parada aurten. «Gazteen artean euskararen erabilera sustatzea», «gazteen artean sare bat sortzea» eta «euskal kultura eta herria ezagutzea» dira



Euskarabenturaren helburu nagusiak. Partaideen kopurua mugatua denez gero, gazteek hautagaitzak aurkeztu beharko dituzte. Aurkezpen bideo bat eta proiektu bat bidali beharko dituzte, gai hauetako baten inguruan: egungo hezkuntza zentroetako jolas-tokien ezaugarriak eta bertan ematen diren dinamikak; arropa eta jantzien kontsumo erdua eta Euskal Herriko historia.



Argazkia: HUHEZI

Hogei urte igaro dira Espainiaz haragoko atzerrietatik ikasleak etortzen hasi zirenetik. 90eko eta 2000ko hamarkadetan % 1koa zen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxeetako jatorri atzerritarreko haurren kopurua. Gaur egun % 11ra igo da zenbakia. Hasieran A eta B ereduetan matrikulatzen baziren ere, gaur egun D ereduan matrikulatzen dira gehienak, baina harago, benetako erronka ikasle horiek ere ongi euskalduntzea da, "eskolak eskain dezakeen guztia jasotzeko", adituen eta bide-urratzaile izan diren irakasleen arabera. Mondragón Unibertsitateko HUHEZI fakultateak jardunaldiak egin ditu gaiaren inguruan abenduaren 17an, 'Etorkinen seme-alabak eta euskara, 20 urteko esperientzien ahotza' izenburupean, eta ikerlari eta irakasle bide-urratzaileena ez ezik, jatorri atzerritarreko ikasleen euren ahotza jaso du.

GAIA:

Ikasleentzat eta euskararentzat ekarpena

Etorkinen seme-alabak eta euskara, 20 urteko esperientzien ahotsa

Romaesa Benslaiman Kraichi etorkinen seme-alaba da, eibartarra, eta irakaslea. Izan ere, Espainiako Estatutik haragoko emigrazio oldeak dagoeneko 20 urte egin ditu. HUHEZI atzera begira jarri zen abenduaren 17an, eta 20 urteotan etorkinen seme-alabak euskaraz hezten egin den ibilbideari begirada bat eskaini dio, aurrera begirako gako batzuk bistaratu.

Datuetatik abiatu ziren Ane Urizar eta Amelia Barquin HUHEZIKO irakasleak 20 urteotako argazkia egiteko: 20 urtean %1etik %11ra igo da Araba Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxeetako atzerritar jatorriko ikasleen kopurua. Datuak xehe irakurrita, ordea, ikusten da DBH eta Batxilergo bitartean dela atzerritar jatorriko biztanleen kopurua txikiena, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzarekin nahiz Lanbide Heziketako maila ertainekin konparatuta (2021ean Batxilergo ikasleen %8,1ek du jatorri atzerritarra; DBHn, 11,3k; GMLHn, 13,9k; aldiz, EMLHn, 18,9k; HHn, 15,1ek; eta LHn, 14,5ek). “Horrek zerbait esan nahi digu”, adierazi zuen Urizarrek, ikerketarako bide bat irekiz. Datuek erakusten dute, halaber, atzerriko jatorriko ikasleen bilakeran

desoreka bat dagoela sareen arabera, “urteen arabera handitzen joan dena”. Ikastetxe publikoen eta itunpekoen arteko desberdintasunak gora egin du: 2010ean sistema publikoan %8,7a zegoen eskolatua; itunpekoan, aldiz, %5,1a. Azken urteetan distantzia hori areagotu egin dela nabarmendu zuen Urizarrek. “3-4 puntutik 8ra etorri da diferentzia hori. Kontuan edukitzeko datua da”.

Bilakaera bat izan da, halaber, etorkinen seme-alabek aukeratu duten hizkuntza eremuan ere: 2000. hamarkada hasieran A eta B ereduatan matrikulatzen zituzten etorkinek euren seme-alabak nagusiki; gaur egun, ordea, D ereduaren aldeko hautua egiten dute nagusiki. Barquinek pozgarritzat jo zuen “HH, LH eta Batxilergoan diferentzia txikitu” izana: “Prozesu batzuk bideratu egin dira eta gai honi heldu egin zaiola erakusten dute datuek”. Haatik, Lanbide Heziketan datuek bestelako argazkia erakusten dute: jatorri atzerritarreko ikasleen lehen hautua ez da D ereduaren aldekoa.

Familia etorkinen seme-alabek D eremuan ikastea ikas-

GAIA: IKASLEENTZAT ETA EUSKARARENTZAT EKARPENA

'Etorकिन seme-alabak eta euskara. 20 urteko esperientzia' jardunaldiak

leen euren “arrakasta akademikoari begira” garrantzitsua bada ere, aurkiaz bezala ifrentzuaz mintzatu ziren Urizar eta Barquin. “Aurrerapauso handia da familia etorkinen seme-alabak D ereduan egotea, ekarpena egin dugula kontsidera dezakegu, euskararentzat eta ikasleentzat. Baina hori horrela izango da baldin eta ikasle horiek euskara ondo ikasten badute — zehaztu zuen Barquinek —. Euskara tresna fin moduan eskuratzen badute eta tresna fin horren bidez eskolak eskaintzen dizkien beste gauza guztiak ikasteko aukera daukaten neurrian izango da benetan ekarpen garrantzitsua”. Euskara ongi menderatzeko erronkaren aurrean, hezkuntza sistema “eraginkorra” izateko beharra nabarmendu zuen. “Euskaraz ikasteak ez ditu jatorri atzerritarreko ikasleak beste minorizazio batzuetara eramango baldin eta ondo ikasten badute euskara, baina, ez badute tresna fina eskuratzen, gerta daiteke minorizazio hori. Beraz, garrantzitsua da ondo ikastea euskara. Erantzun eraginkorra emateko beharra daukagu. *Eraginkorra* da hitz gakoa”.

Eraginkorrek izateko, hitz gakoa *baliabideak* da. Baliabideak behar dira ikasle guztiak eta bereziki ingurunean euskararik ez dutenek ongi ikas dezaten, hau da, hizkuntza errefortzuak, datuak erakusten baitute LHn jasotzen diren laguntzek gerora DBHn etena izaten dutela. Baliabideez gain hezkuntza eragilean formazioa nabarmendu zuten eta hizkuntzen didaktikan ikusten dute gakoa HUEZIKO irakasleek. “Hizkuntzen didaktikan dago gakoa, eta hau positiboa da, oraindik dena ez dugu egin. Kezka da ikasle hauek ez dutela lortzen behar den maila eta jabekuntza, baina alderdi positiboa da ez dugula oraindik dena egin, eta hizkuntzen didaktikan badaudela hobetzeko alderdiak”. Aisialdia da jorrazteko dagoen beste eragingune bat. “Batzuetan [hizkuntza] arrakalak eskolatik kanpo jarraitzen du. Autoktonoen seme-alabak jarduera batzuetan daude eta etorkinen seme-alabak beste batzuetan. Hori errekurtsio ekonomikoekin lotua dago, baina ez erabat.”

Datuak eskuetan, beste behin, irakasleek argi erakutsi zuten jatorri atzerritarreko haurrak euskalduntzearen erronka ez dela eskolarena bakarrik. Behin aisialdiraen garrantzia nabarmendua, familiak aipatu zituen Barquinek. Irakasleak adierazi zuen familiekin eurekin partekatu behar dela euren seme-alabak ongi euskalduntzearen behar eta helburu hau, eta harago, familiekin euskararen egoera soziolinguistikoa partekatu beharko litzatekeela: “Ez zaizue iruditzen agian familiek euskararekin lotutako oinarritzko gakoak ikasi beharko litzuketela? Ez dut esaten lehengo egunean edo bigarrenean, baina atzerritik etorritako familiek noizbait jakin beharko lukete zerbait, modu antolatuan, euskararen inguruan. Eta baita gizarte honen elementu batzuk ere,

besteak beste, zer garrantzia daukan euren seme-alabentzat euskaraz ikasteak; edo zeinen garrantzitsua den jarrera positiboa agertzea eskolako hizkuntzarekin”. Barquinen aburuz, familiei partekatu behar zaie euren seme-alabek eskolan igarotzen duten denbora ez dela nahikoa euskara ongi berenganatzeko: “Informazio garrantzitsua da jakitea eskolako denbora ez dela nahikoa eta beste gauza batzuk egin behar direla euskara ondo ikasteko”.

Barquinen eta Urizarren arabera, etorkinen seme-alabak “ondo” euskalduntzen lagunduko luke identitatearen gaia lantzeak, eta “hemengo sentitzeak”, eta aldi berean, euren jatorria zaintzeak: “Identitate pluralaren aukera kontsideratu beharko litzateke, eta gure proposamena irakasleek identitate plurala eskaintzea litzateke, euskaldun sentitzea norbere jatorria sentitzeaz gain. Ze aukera daukate umeek gure ikastetxeetan identitate plurala eraikitzeke? Identitate plurala posible da, nahiz eta irakasle eta familia askok ez duten horri buruz pentsatu”. Kontzeptualki, bederen, gako horretarantz abiatzera gonbidatu zituen irakasle eta gurasoak. “Harrera planetan ez dagoen informazioa da, baina honi buruz ere hitz egin behar da familiekin”. Horretarako, familiaren eta eskolaren arteko harremana “erraztu” behar da: “Etxeko hizkuntzak trataera egokia izan behar du ikastetxean; baina irakasleok ba al dakigu zeintzuk diren gure familien hizkuntzak? Familiek badakite hizkuntza horiek estimatzen ditugula? Estimua adierazi egin behar zaie familiei, eta baita gaztelania ere”.

20 urteotako esperientziak argi erakutsi du, Barquinen arabera, euskara kohesio hizkuntza dela: “Etorकिन seme-alabak euskarara erakartzea ekitatearekin eta elkartasunarekin lotua dago, euskara eta ekitate soziala ahizpak izan beharko dira ezinbestean. Benetan pentsatzen dugu hala dela. Etorकिन seme-alabek euskara behar dute, eta euskarak etorkinen seme-alabak behar ditu”. Korrelazio hau errazago emateko, funtsezko ideia da ikasle hauek gizartean zein eskolan jasotzen duten trataera zaintzea, gisa horretan atxikiko baitzaizkio (edo ez) hizkuntzari: “Atzerritar moduan edo bertako moduan tratatzen ditugu? Irakasleek gizartean eta eskolan jasotzen duten trataerak erlazioa izango du irakasleek euskararekiko garatuko duten atxikimenduari”.

Atzera begiratu ostean, aurrera begirako erronkei erantzuteko bost gako zehaztu zituzten hizlariek: 1) Euskararen irakaskuntzan arreta jartzea. 2) Formazioa hezkuntzako eragileei eta formazio espezializatua HIPientzat. 3) Eskola eta familien arteko elkarlana zaintzea. 4) Eskola eta ingurunearen arteko elkarlana sustatzea eta 5) segregazioa saihestea.

GAIA: IKASLEENTZAT ETA EUSKARARENTZAT EKARPENA



Jaione Garai, Inma Ortega, Joseba Ibarra eta Uri Ruiz Bikandi 90eko eta 2000ko hamarkadetan hasi ziren etorkinekin lanean.

Ikasle etorkinak euskalduntzen bide-urratzaileak

Hogei urtez ikasle etorkinak nahiz etorkinen seme-alabak euskaraz hezten aritu diren irakasle batzuen ahotsa bildu zuen jardunaldiak: Jaione Garai, Inma Ortega, Joseba Ibarra eta Uri Ruiz Bikandi. Hasieran ezjakintasuna nagusi bazen ere, formazioari esker, didaktika zainduz begirada zabalduz eta materiala sortuz, bide duina egin dutela ikusten dute profesionalek.

Atzera begira jartzean, Marokotik Abadiñora, Ugandatik Dulantzira, atzerrietatik euskal herrietara ikasleak etortzen eta etortzen hasi ziren urte haiei begira jartzean, orduko “ezjakintasuna” nabarmendu zuen Joseba Ibarra Berritzegune Nagusiko irakasleak: “Beste herrialde batzuetatik ikasleak iristen hasi ziren eta irakasleok ez genekien zer egin. Beldurto ere egin ziren irakasle asko. Beste errealitate baten aurrean topatu ginen, guretzako beste mundu bat deskubritzea izan zen hura. Zerbait egin behar zen, baina zer?”. *Uholdea* deitzen zioten etorrera hari, baina atzeritik etorritako ikasleen kopurua ez zen % 2ra ere iristen orduko hartan. Gaur Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxeetako ikasleen % 11k atzerrian du jatorria. “Orduan ez genekien zer egin, baina zerbait egin beharra zegoen”. Lehen urrats gisa, elkartu egin ziren irakasleak eta mintegi

bat antolatu zuten, eta irakurtzen eta eztabaidatzen hasi ziren. “Atzeritik ikasleak etortzen hasi zirenean, hizkuntzen irakaskuntzari beste buelta bat eman ahal zitzaioela ikusi genuen eta bide bat irekitzen ari ginela ikusten genuen”.

Joseba Ibarrarekin batera, 20 urtez etorkinen seme-alabak euskaraz hezten jardun diren beste hiru irakasle bildu zituen jardunaldiak mahaiaren bueltan: Jaione Garai irakasle eta zuzendaria, Inma Ortega material sortzailea eta irakaslea eta Uri Ruiz Bikandi irakaslea eta ikerlaria. Bide-urratzailei omenaldi bat eskaini nahi izan zien, gisa horretan, HUHE-ZIK Karmele Perez irakasleak esan zuenez.

Hizlariek azaldu zuten, atzeritik etorritako ikasleen zein etorkinen seme-alaben euskalduntze-bidea irakasleek, ikas-

leek eta familiek elkarrekin egin behar zutela argi ikusi zuten hasieratik bide-urratzaileek. Ikasleek eurek emandako lezioak izan ziren akuilu. Inma Ortegari Ugandako ikasle bat egokitu zitzaion 90eko hamarkadan Dulantziko eskolan. “Dulantzi herri patateroa da eta noizbehinka aldikako langileak etortzen ziren, batzuetan seme-alabekin. Ingurunea lantzen ari ginela 5. mailan, Ugandako neska hark esan zidan behin bakarrik ikusi zuela bera bezalako ume bat ikasliburuetan; gosetea pasatzen ari zen ume baten irudia zen. Hark eman zidan kulturartekotasunari buruzko lehen lezioa”. Argitaletxeari gutun bat idatzi zioten eta argazkia kendu zuten ikasliburutik. Hurrengo lezioa Portugalgo haur batek eman zion. Otsailean sartu zen 5. mailako gelan. “Gero Gasteizera joan behar zen eta han A eredura pasako zenez, gelatik kanpo egoten zen, beste ikasleak euskaraz aritzen baitziren. Behin esan zidan ‘a mí por qué no me quereis enseñar vasco?’. Arrazoí zeukan”. Bi ikasle horiek emandako lezioak eta gisa bereko beste ugari giltzarri izan dira Ortegak ikasleak euskalduntzen eta materialgintzan egin duen ibilbidean. “Ganibet eskolara pasa nintzenean lehenengo hamarkadan 42 herrialdeetako haurrak izan genituen. Ibilbide honetan zehar borroka handiak izan ditut hainbat irakasleekin eta familiekin, baina oso egoera ederrak ere bizi izan ditut”.

Espainiaz besteko atzerrietatik ikasleak iristen hasi zirenean, beharrak eraginda, “hizkuntzen transferentziaz” hasi ziren hizketan, didaktikaz, materialen premiaz... Berrikuntza handien garaia izan zen. “Hasieran uste genuen euskara eta gaztelania jakin gabe, ez zekitela ezer ikasle haiek —gogoratu zuen Ibarrek—. Gero hasi ginen transferentziez eta hizkuntzen funtzioaz irakurtzen eta eztabaidatzen, hizkuntza batean dituzun gaitasunak nola transferi daitezkeen eta azpigaitasun komunak landu behar direla ikusi genuen, besteak beste. Baina orduan ez geneukan horren berri”. Denborak eta ikasleen esperientziek erakutsi zieten ikasle etorri berrien artean ere diferentziak zeudela, zein hizkuntzaren jabe ziren aurretik, familiaren alfabetizazio mailak eragina zuela... eta ikusi zuten ikasketen prozesu berrian gako garrantzitsua zela hona etorri aurreko eskolartze-prozesua: “Haien jatorriko herrian eskolartze prozesua ona izan bada eta ongi ikasi badute euren hizkuntzan, bigarren hizkuntzan errazagoa izango da —adierazi zuten

Ortegak—. Aldiz, laugarren mailan sartu den ikasleak bere hizkuntzan irakurtzen ez badaki, oso zaila izango da beste hizkuntza batean egitea eskolartze-prozesua”.

Buruhauste handiak izan dituzte bide-urratzaile izan diren irakasleek ikasle etorkinen euskalduntze eta eskolartze-prozesuetan. Ebaluazioa izan da gako zail horietako bat, Ibarrek azaldu zuenez: “Nola demontre ebalua daiteke gure hizkuntza ez dakien ikasle bat? Hasieran uste genuen euskara eta gaztelania jakin gabe, ikasle haiek ez zekitela ezer”. Euskara salbuespena eskatzearen aldekoa da Ibarra, batez ere DBHn. “Ebaluazioa aurrerapenen neurketa da, beraz, esango nuke euskara kalifikaziotik salbuespena nukeela”. Bereizi egin zituen ongi ebaluazioa eta kalifikazioa: “Euskara ebaluatu egin beharko litzateke, baina gauzak ondo eginda, ondo neurtuta eta bakoitzari hizkuntza ikasteko behar duen denbora emanda, baina kalifikaziorik gabe”.

Ruiz Bikandirentzat didaktika izan da etorkinak euskalduntzeko gako garrantzitsuenetakoa: “Nire ardura zen hizkuntza berri batek nola funtzionatzen duen pertsonaren buruan eta nola lagundu buru horri ikasten”. Gainera, etorkinak euskalduntzea lehen zaila bazen, problema are gehiago zaildu zuen ingelesaren sarrerak: “Politikari batzuek oso erraz hitz egiten zuten: ‘euskal ikasleek hiru hizkuntza ikasiko eta menderatuko dituzte ikasketen amaierarako’ esaten zuten. Nola? Hori esaten baduzu, baliabide mordera jarri behar duzu”. Irakasleen eredia nabarmendu zuen. “Hizkuntza ikasten duzu irakasle ona baduzu, bere hizkuntzaren kontrola badauka. Ikastetxeak begiratu egin behar du bere irakasleek nola irakasten duten hizkuntza. Ikasleek, eta batez ere hizkuntza menderatzen ez duten ikasleek, hizkuntza argia behar dute. Irakasleak hizkuntzaren eredia ematen du”.

Sarrerako hitzaldian Urizarrek eta Barquinek zehaztu zuten ez dela aski euskara jakitea benetan eraginkorra izateko ikasleek euskara ongi menderatu behar dutela; bada esperientziaren ahotsak ere gako bera nabarmendu zuen: “Ez da nahiko ikasleak euskaraz moldatzen direla pentsatuta, hortik ikasketak euskaraz egitera ikaragarritzko aldea dago, eta bide horretan ikasleek izaten duten bi urteko laguntza ez da nahikoa”, adierazi zuen Ortegak.

"Ez da nahiko ikasleak euskaraz moldatzen direla pentsatuta, hortik ikasketak euskaraz egitera ikaragarritzko aldea dago"

Inma Ortega, irakaslea eta materialen sortzailea

GAIA: IKASLEENTZAT ETA EUSKARARENTZAT EKARPENA

Formazioa izan zuen bideak urratzeko helduleku garrantzitsu Jaione Garai Ibabek, “Formakuntza ezinbestekoa izan da. Lan askorekin, inplikazioarekin eta konpromisoarekin egin dugu aurrera. Hizkuntza bakarrik ez zen, gehiago behar genuen”. Eskolaren ondoan MUko fakultatea eduki izana eskertu zuen: “Teoria eta praktika landu ditugu etengabe. Metodologia aldetik salto handiak egiteko aukera izan dugu, beti ere, euskara indartzeko”.

Hogeitaz emandako esperientziatik aurrera begira jarrita, hainbat gomendio eman zituen Ortegak. Hasteko, harrera on baten garrantzia nabarmendu zuen: “Ezinbestekoa da ikaslea babestea eta ingurune seguru bat ematea, etengabeko estres egoeran baitaude. Babesa ezinbestekoa da haien eskola-prozesua arrakastatsua izango bada”. Horretarako, tutorearen esku-hartzetik harago, “eskola guztiaren inplikazioa” lehenetsi zuen Ortegak, eta eskolatik harago, herriarena: “Udalak ez dira konturatu ikastetxeak direla oso desberdinak diren familiak elkartzen diren lekua, eta ze tresna garrantzitsu diren giza kohesiorako eta gizartea hobetzeko”. Gomendio horiei gehiago erantsi zizkien Ibarrek. “Elkarrekin zer ikasi handia

daukagu, eta asko laguntzen du irakasleak ikasleen jatorriko hizkuntzan hitz gutxi batzuk bederen jakiteak. Errespetuz hurbildu behar dugu, interesez eta jakin-minez, hizkuntza trataera hortik hasten da”. Etorri berriei harrera ona egiteko pausoak zehaztu eta idatzi egin behar direla ikasi du Garaik. Ibarrek eta Ortegak esandakoei prestaketaren beharra gehitu zien, interpreteen beharra familiekin elkar ulertzeko, HIPIen errefortzuen prestaketa eta familien beharrezko ekonomiko zein sozialak aintzat hartzea eta herriko beste erakundeekin elkarlana sustatzea nabarmendu zituen Garaik. “Hezkuntza proiektuak artxibotik atera eta gure eskola komunitatea nola aldatu zen eta zer behar zituen ikustea beharrezkoa izan zen, partaidetza ireki eta plana berdiseinatzea geneuzkan familiei eta haien beharrei erantzuteko. Begirada berezia behar izan dugu, inklusiboa eta konpentsatzailea”. Dena eraikiz joan dira, baina lan erraldoi horren alderdi onarekin gelditzen da: “Etorkinek bizirik mantendu gaituzte, erronka berriak jarri dizkigute”. Horretarako funtsezkoa izan da partekatzea eta elkar ezagutzea: “Ondokoa ezagutzen baduzu, errespetatu egingo duzu; ez baduzu ezagutzen, oztupoak ikusiko dituzu. Ikuspuntua ireki eta aberastu dute etorkinek”.

"Hizkuntza ikasten duzu irakasle ona baduzu, bere hizkuntzaren kontrola badauka. Hizkuntza menderatzen ez duten ikasleek, hizkuntza argia behar dute"

Uri Ruiz Bikandi, irakaslea eta ikerlaria



Bide urratzaileak jatorri atzeritarrak dituzten gazteekin: Leocadia Bueriberi, Hafsa Fenehara, Romaesa Benslaiman eta Oscar Maciasekin. ARG: HUHEZI

GAIA:

IKASLEENTZAT ETA EUSKARARENTZAT EKARPENA

'Etorकिन seme-alabak eta euskara. 20 urteko esperientzia' jardunaldiak

“Hezkuntzatik gauzak alda daitezke”

“Gu gara ume haiek” goiburupean jatorri atzerritarreko gazteak batu ziren euren eskolatzeta euskalduntze-prozesuaren gorabeherak azaltzeko: Oscar Macias arrasatearra, Romaesa Benslaiman eibartarra, Hafsa Fenehara azkoitiarra eta Leocadia Bueriberi gasteiztarra.

Gu beste mundu batetik gatoz, beste errealitate batetik gatoz. Garrantzitsua da irakasleak ulertzea gu nondik gatozen ikasketa-prozesuan sartu ahal izateko”. Oscar Maciasen hitzak dira. 9 urte zituela etorri zen anaiarekin Ekuadorretik Arrasatera. “Ikastetxe osoko ikasle beltz bakarra eta ez zuri bakarra izan naiz”, azaldu zuen Leocadia Bueriberik. 8 urterekin etorri zen Gasteizera Ekuatore Gine-tatik: “Etorri nintzenean ez nekien hemen beste hizkuntza bat ere hitz egiten zenik. Aldaketa oso handia zen, beste gizarte kontestu, beste modu bateko pertsonak eta beste hizkuntza bat ezagutu behar nituen. *Shock* bat izan zen. B ereduan sartu ninduten eta 3. maila errapikarazi zidaten”.

Duela hogeitau urte Euskal Herri osoko ikastetxeek hartu zituzten jatorri atzerritarreko ikasleentzari bi dira Macias eta Bueriberi, baita Hafsa Fenehara eta Romaesa Benslaiman ere. Ia-ia bizi berri bat ikasi behar izan dute, ia-ia tupustean. Eta hizkuntza berri bat batzuen kasuan; bi, besteenean.

Eskolan ikasi dute euskara lau gazteek euren haurtzaroan. Materialak, hizkuntzen didaktika eta HIPIak berritzen ari ziren eurak ikasten hasi zirenerako. Baina ez eskola ezta eskolako errefortzuak ere ez zaizkie aski izan euskara gaur menderatzen duten bezain bikain menderatzeko. Maciasentzat lagun-arteak izan da akuilu: “Ikastolan eta euskaltegian egindako lanaz gain, ikastolan egindako lagunak oso garrantzitsuak izan dira euskara ikasteko, eurekin praktikatu dut”. Feneharak, berriz, AEK-ko euskaltegiaren bultzada behar izan zuen: “Nire euskara ikasteko prozesuan oso inportanteak izan dira AEKko irakasleak. Arraro sentitu gabe ikasi ahal izan nuen bertan euskara. Nire ikaskideek ez zekiten zer zen Ramadana, baina AEK-koek bai”. Haatik, Bueriberik nabarmendu zuen etorkin guztiek ezin dutela halakorik ordaindu. “Ni behin egon naiz euskaltegi batean, elkarte batek pertsona migranteentzako bekak zituelako. Nondik aterako dituzu 2.000 euro euskara ikasteko? Zergatik ematen dizkigute erdaraz ikasteko klaseak dohainik eta euskarazkoak ez?”.

Inguruneaz eta baliabideez gain, denbora behar da deusetaz

ezagutzen ez den hizkuntza bat menderatzeko: “Prozesu bat da”, adierazi zuen Bueriberik. Normalki zailtasun handiko prozesua. “Autoktono askok ikasi dute euskara etxetik kanpo, guk bezala eskolan, baina haien aldean kanpotik gatozen ikasleok hamaika erronka ditugu: mundu berri bat ezagutzen ari gara, jendeak onar gaitzan saiatzen ari gara etengabe, eta gurasoentzat ere dena berria da, paperak egin behar dira, tramiteak egiten lagundu behar dugu... ez da erraza”, adierazi zuen Feneharak. “Bizirauten ari gara egunero”, gehitu zion Bueriberik. Muturreko egoeran egin behar izan diete aurre maiz eskolatzeta euskalduntze-prozesuei: “Bakarrik migratu naiz ahizparekin, ez daukat etxerik... eta irakaslea kexatzen zait eskolan lokartu egiten naizelako!”, kexatu zuen Bueriberi. Ikasle bakoitzak “daukan motxilaren araberrako esku-hartzea” behar duela nabarmendu zuen. “Nire egoera administratiboa oso zaila da, paperak egitea oso konplexua da eta egoera irregularrean gelditu nintzen, amaitzen ez diren tramiteekin, eta horrez gain, eredu berri batera moldatzen ari naiz eta oso zaila da. Hori da gutako askoren motxila”.



Macias, Benslaiman, Fenehara eta Bueriberi.

GAIA: IKASLEENTZAT ETA EUSKARARENTZAT EKARPENA

Norberak ekar lezakeen motxilaz gain, euskara ez ikaste-ko edo aski ongi ez menderatzeko beste arrazoi bat, gure gizartearen aurreiritziak eta espektatibak dira, “atzerriko jatorriko ikasleekiko irakasleek zein lan munduak dituzten espektatibak” zehaztu zuen Benslaimanek: “Zertarako ikasi behar dut euskara gero ez banaute lan munduan onartuko? Orientatzailearen eta irakaslearen espektatibak, normalean, oso baxuak izaten dira etorkinen seme-alabekin eta nik uste dut altuak izan behar direla, aukerak eta animoak behar ditugu aurrera egiteko”. Espektatibei egozten die ikasle etorkinak Batxilergora edo unibertsitatera ez iristeko arrazoa, “gizarte-ko estereotipo eta aurreiritziengatik lan mundura ateratzeko arazoak izango ditugula pentsatzen dugu, adibidez, nire kasuan, musulmana naizelako zapiarengatik oztupoak izango ditudala pentsatu izan dut”. Kezka bera dauka Feneharak: “Batxilergoa bukatu eta karrera bat egitea zen nire helburua. Nire ikaskideak arduratuta zeuden zer ikasiko ote zuten, nik neukan preokupazioa zen Zuzenbidea ikasi eta edozein lekutara joatean ez ninduela inork hartuko, edozein lekutara joaten naizenean ez dut inoiz ni bezalako pertsonarik aurkitzen. Tabernetan eta supermerkatuetan atzean lan egitea eskaini izan didate beti, ez barran ez kutxan. Ze motibazio izango dut karrera bat ikasteko edo euskara ikasteko?”.

Maciasen kasua salbuespen bat da. Unibertsitatean ikasi ostean kooperatiba bateko finantza arloan egiten du lan. “Nire ingurukoek ez dute unibertsitate gradua ikasten, gehienetan goi zikloko formazio batekin industriar edo mekanizatuan lan aukera handiagoak dituztela pentsatzen dutelako. Bizi dugun egoera ekonomikoa dela-eta, familia aurrera ateratzeko etxean dirua behar dela-eta, hasieratik familian ekarpena egin behar dugu”. Benslaiman beste salbuespen bat da. Eibartarra irakaslea da eta unibertsitateko gradu amaierako lana, hain zuzen ere, etorkinen seme-alabei buruz egin zuen, bidean dituzten oztupoak ezagutzeko eta gaintzen joateko. Urizarrek eta Barquinek sarrerako hitzaldi nagusian esan zuten bezala, ikasle etorkinen edota etorkinen seme-alaben identitatea zaintzea gako garrantzitsua da, Benslaimanek ondorioztatu zuenez: “Argi eduki behar dugu hainbat identitate ditugula. Nire gurasoak Tangerangkoak dira, niri etengabe galdetzen didate nongoa naizen, nire seme-alabei ere gauza bera galdetuko ote diete? Identitatea landu beharreko gauza bat da, ez etorkinen seme-alabekin bakarrik, ikasle guztiak baizik, euskalduna izateaz gain beste identitate batzuk izan

ditzakezu, eta hezkuntzan hori landuko bagenu, igual zerbait aldatuko genuke, nahiz eta gizartean estereotipoak izaten jarraitu”. Norberak izan dezakeen identitate anitzaz jabetzea ahalduz prozesu bat da, Bueriberiren arabera. “Hainbat lagun gaudenean ez digute denoi galdetzen nongoak garen, bakarrik arrazialiatuoi galdetzen digute. Ni gasteiztarra eta euskalduna sentitzen naiz, baina ez naiz euskaldunen moldean sartzen, euskaldunentzat beti eramaten dut *emigratu* etiketa. Ahalduz-prozesu horretan oso estresagarria da denbora guztian gure identitatea zein den azaldu beharra; batzuetan ez daukagu hain argi, edo ez da hain sinplea edo ez daukagu ezezagun bati hainbeste azalpen emateko gogorik”. Bat etorri zen Macias: “[Jatorri atzerritarreko] guztiok daukagu identitate krisia. Nik ere eduki nuen, hemengo jende batek ‘zu ez zara hemengo’ esaten zidalako. ‘Zelan ez naiz izango?’ Hori esaten zidatenean gogoia ematen zidaten euskara gehiago ikasteko eta kulturari gehiago sartzeko. Landu egin behar dira gauza horiek, eta irakasleek gauza hauek kontuan eduki behar dituzte”. Fenehararen aburuz, etorkinek eta euren seme-alabek ez ezik, autoktonoek ere hausnartu beharko lukete migrazioei eta euren jarrerei buruz: “Gu esfortzua egiten ari gara integratzeko, baina jendeak jakin behar du zer esan daitekeen eta zer ez den esan behar guztiok ondo sentitzeko; bertako jendeak ez daki nola erreakzionatu eta nola ez sentiarazi arraro kanpotik etortzen den jendea. Batzuetan ez da beharrezkoa dena ulertzea, nahikoa da elkar errespetatzea”.

Bukatzeko, eta hezkuntza fakultatean eta irakasleen zein irakaslegaien aurrean egonik, lau gazteei galdetu zieten ea etorkizuneko irakasleek zer izan behar zuten kontuan migrazioei dagokienez. Feneharak prestakuntzari eman zion garrantzia: “Irakasleek prestatuta egon behar dute gela batean pertsona diferenteak hartzeko, beltzak, zuriak, belodunak... Kontuan izan behar dute pertsona guztiak ez dituztela zirkunstantzia berdinak”. Maciasek ere formazioari heldu zion: “Kultura eta identitate formakuntza jasotzea garrantzitsua da, eta proaktiboak izatea”. Ordura arteko eredu pedagogikoa zalantzan jartzea aholkatu zien Bueriberik: “Entzun eta ikus gaitzazue garen bezala eta ez zuten buruetan uste gaituzuen bezala. Ni bezalako emakume bat betiko roletan ikusten badut, garbitzen edo zaintzen, zer espero behar dut? Hori zuek aldatu behar duzue”. Espektatibak igotzea eta begirada zabaltzea eskatu zien Benslaimanek: “Aurreiritziak eta estereotipoak jarraituko dute gizartean, baina hezkuntzatik gauzak alda daitezke”.

"Entzun eta ikus gaitzazue garen bezala eta ez zuten buruetan uste gaituzuen bezala. Ni bezalako emakume bat betiko roletan ikusten badut, zer espero behar dut?"

Leocadia Bueriberi



“Ikastola iraultza handia da niretzat”

ELKARRIZKETA: LIBE GOÑI GARATE

ATZOKO ETA GAURKO IRAKASLEA

Oteitzan (Nafarroa) jaio, 3 urte zituela Lazkaora (Gipuzkoa) joan eta hogeita 22 urterekin poliziarengandik ihesi, Donibane Lohizunen (Lapurdi) hartu zuen bizileku Libe Goñi Garatek. Bera izan zen Seaskako lehen andereñoa. 1969an, Baionan, Argitxu Nobliaren eta Lazaro Arandiaren seme-alabekin hasi zen haien etxean irakasle lanetan, eta hor erein zuten Seaskaren hazia. 52 urte geroago, landare ederra ikusten du begien aurrean. Garai hartan, egungo egoera utopia hutsa zela dio Goñik, pentsaezina zela euskara eta euskal nortasuna suspertu diren moduan susper-

tuko zirenik, eta ikastolak iraultza handia izan direla uste du. Egindakoaz harro, baina umiltasun handiz dio haiek ereindako hazia ureztatu duten lekuko, galtzagorrien lanari esker gaudela egun gauden egoeran. 2007an hartu zuen erretiroa baina ez ditu alboratu irakasle lanak. Reikiari lotua da orain, eta liburua argitaratu du aurtan: 'Har 3 minutu zuretako'. Hiru minututan egiteko ariketak proposatzen ditu, gorputza sendatzeko eta indartzeko. Udaberrian lehen Monzon-Ganuzasaria jaso zuen "herriari bizi osoko lana eskaini dion herritarra" izateagatik.



Ikastolei lotua eman duzu bizitza, Libe.

Bai. Donostian egin nituen irakasle ikasketak eta ikastoletan lanean hasi nintzen ondoren. Karmele Esnalekin batera hasi nintzen eta Elbira Zipitria ezagutu nuen. Nire ideia Euskal Herriarengatik zerbait egitea zen. Hizkuntza garrantzitsua dela ikusten genuen eta pentsatzen genuen ikastolak euskara salbatuko zuela. Hori zen gure barneko gogoia. Orain ohartu gara ikastolak ez duela euskara salbatu. Garai hartan eskola espainiarra biziki txarra zen, eta Elbira Zipitriak Donostian sortu zuen ikastola. Hari zor diogu ikastolen sorrera, eta ni bere eskuetatik pasatua naiz. Gero, haurren marrazkien bidez haien izaera ezagutzen ikasi nahi nuen eta horretarako Iruñeara joan nintzen. 1968an eta 1969an unibertsitatean aritu nintzen: denbora erdiz ikastolan aritzen nintzen lanean, eta denbora erdiz unibertsitatetan. Baina 1969ko otsailean ama larrituta etorri zitzaidan “Libe, txapelokerrak etorri ditun etxera eta alde egin ezan hemendik!” esanaz. Orduan, etxetik alde egin eta Donibane Lohizunera etorri nintzen. Nire asmoa hemen ikastolak bultza-

tzea zen, baina hasieran ezezkoak jaso nituen, izpiritua ez baitzen horretan.

Ezezkoak baiezko itxura hartu zuen, ordea...

Bai. Lazaro Arandiak nigana jo zuen haren emaztea, Argitxu Noblia, seme-alabekin euskaraz ariko zen irakasle bila zebilelako. Eustakio Mendizabal Txikia, ezagutzen genuen biok eta haren bidez heldu zen niregana. Parisera joateko nuen asmoa bertan behera utzi eta Donibane Lohizunetik Baionara etorri nintzen, haien etxera. Etxe batean hasi ginen beraz, jangelan, bi haurrekin. Horrela hasi zen dena. Txoko hari izena jartzeko ueña ere iritsi zen, paperak egin behar baikenituen gure jarduna legeztatze-ko eta haur tipiak genituenez, Seaska izena eman genion. Orduetik aurrera, erretiroa hartu arte, hor ibili nintzen buru-belarri.

Irakasle gisa aritu zinen hemen Baionan bertan, baina baita Arrangoitzen eta Angelun ere...

Bai, etxe batean hasi nintzen eta ondoren, Enbatak utzitako gela batera joan ginen. 1969ko uztailean

anai-arreba batzuk hartu genituen, eta abuztuan Lazkaora joan eta euskaldundu ziren. Loturak egin nahi nituen Hegoaldearen eta Iparraldearen artean eta hor hasi zen dena. Nire gogoia zen, nire bihotzak hori eskatzen zuen. Nik ez dut ezer berezirik egin, halakoa naiz. Buruan ametsen bat dudanean ehunetik ehun ematen dut. Herriarendako nahi nuen zerbait egin, euskaldun hutsa sentitzen bainaiz.

Urte asko eman zenituen Seaskan irakasle. Hastapenetan izan zinen eta erretiroa hartu arte bertan aritu zinen lanean. Bilakaera handia izan du Seaskak, etengabe hazten ari da eta ikasle asko ditu gaur egun. Nola bizi izan duzu bilakaera hori?

Utopia hutsa zen garai batean hau gertatuko zenik, ikastolak hala haziko zirenik. Halakorik ez genuen pentsatu ere egiten. Adibidez, Olentzero Baionako herriko etxean agertuko zela? Utopia hutsa zen hori. Hala ere nik beti erraten dut ni hasi nintzela, baina lekukoak, galtzagorriak, direla behar-beharrezkoak direnak. Nik maite dut ereitea eta gero emaitza jasotzea, baina lekukoa hartzen dutenak, horiek dira benetan txapeldunak.

Zeren nire lekukotasunik hartu izan ez balute, gaur egungo egoera ez zen hau izango. Ikastolak gurasoak eta herriko jendeak lotu ditu. Niretzat ikastola iraultza handia da, ez da soilik eskola. Hemen tsunami handi bat gertatu da. Hegoaldean bazen euskal kontzientzia, jendeak sentitzen zuen ez zela espainiarra, Francoren kontra borrokatu ziren. Baina hemen, Frantziaren izenean borrokatu zuten alemaniarren aurka eta gehiengoa ez zen euskaldun sentitzen. Galdua zuten hori erabat. Eta ikastolak indar hori, gogo hori berpiztu du eta jendea euskaldundu du.

Zer sentitzen duzu orain, atzera begiratuta? Zuek erein zenuten hazia, eta orain landarea begi bistan duzue. Euskara soilik ez, euskal nortasuna indartzen ere lagundu dute ikastolek. Bai. Nortasuna indartu dute, herria bera. Ikastolak ekarri du iratzartze hori. Dirua behar zen, Frantziako Hezkuntza Sistemari aurre egin behar zitzaion, eta borroka hori ez da bukatu oraino. Baina nork esango zuen ikastolen aldeko eskaerak egiteko Parisera joaten ariko zirela ezker eta eskuin! Utopia hutsa zen hori.

2007an hartu zenuen erretiroa. Orain, ikastolako irakasle lanak utzita eta beste distantzia batetik begiratuta, nola ikusten duzu gaur egun euskararen eta euskal hezkuntzaren egoera?

Nik pena handia hartzen dut haurrak ikastolatik ateratzen direnean frantsesez mintzatzen. Hori da nire sentimendua. Kataluniarrek badute kataluniar izatearen harrotasun eta izpiritu hori, baina guri hori falta zaigu. Nik miresten ditut kataluniarrek, beste garapen bat izan dute. Helduok kontzientzia izan behar dugu. Guk izan behar dugu eredu, zeren hala ez bada, haurrek ingelesa ikasten duten moduan ikasiko dute euskaraz. Eta nik, zoritxarrez, helduak ez ditut eredu ikusten.

Elkarrizketaren aurretik saminez aipatu duzu hutsune handia badela eta Hegoaldeko ikastoletan ez dela frantsesa ikasten, baina ingelesez badakigula.

Beste aldeko jende guztiarekin hori gertatzen da, bai. Tripako mina ematen dit, benetan. Euskaldunon artean muga bat ezarri dugu edo ezarri dute, Francok egin ez zuena. Zeren Francorekin, ongi edo gaizki, frantsesez ikasten genuen eta orain ez da halakorik gertatzen. Ikastolen Elkarteari ere helarazi izan diot nire haserrea. Euskal Herrian hiru hizkuntza ditugu eta hori kontuan izan beharko genuke.

Bizitza osoa euskarazko irakaskuntzari lotua eman duzu eta hainbat sari jaso dituzu horren ondorioz. 2009an Argizaiola saria jaso zenuen Gerediaga Elkartearen eskutik, 2010ean Ohorezko Lauburua eman zizun Alkartasuna Fundazioak eta pasa den udaberriean Ganuza-Monzon lehen saria eman zizuten "herriari bizi osoko lana eskaini dion herritarra" zarelako. Nola hartu zenuen? Negar egiteko gogoa ematen dit. Hunkitzen naiz. Norbaitek deitu zidan eta esan zidaten saria eman behar zidatela, ea nahiko nukeen. Ez nuen ulertzen eta ea nori deitu zioten ba ote zekiten galdetu nion. Beti esan dut gurasoei eta galtzagarriei zor diedala dena. Biziki zaila da opariak hartzea, nik ez dakit opariak hartzen. Gure zaflakoak eta minak hartzen ditugu bizitzan, baina zeinen zaila den opariak hartzea! Ez du ezer ikustekorik, baina nik maite nuen nire buruari reiki egitea. Depresioa duzunean, gorputza toki batean duzu eta izpiritua beste toki batean, ez daude lotuta, eta reiki-ak kontzientzia harrarazi zidan. Mundu magikoa zen niretzat eta maite nuen besteei egitea, baina besteek niri reiki egitea onartzea, biziki gogorra izan zait. Gero ongi sentitzen nintzen baina ez zen samurra. Opariak eta besteek emandakoa jasotzea zaila izan zait beti eta gauza bera gertatzen zait sariekin ere. Baina ustekabeko ederra izan zen. Aspaldiko bizipenak berpiztu zizkidan, bizipen gogorrak, gerla garaiak eta tsunami handia izan da nire barnean. Ona izaten omen da halakoak bizitzea gure barnean garbiketa egiteko, baina egia esan urte aberatsa eta gogorra izan da 2021a. Bosgarren biloba izan dut eta liburua argitaratu

"Nik beti erraten dut ni hasi nintzela, baina lekukoak, galtzagarriak, direla behar-beharrezkoak direnak. Lekukoa hartzen dutenak, horiek dira benetan txapeldunak"

"Hegoaldean bazen euskal kontzientzia, jendeak sentitzen zuen ez zela espainiarra, Francoren kontra borrokatu ziren. Baina, hemen, Frantziaren izenean borrokatu ziren alemaniarren aurka eta gehiengoa ez zen euskaldun sentitzen. Galdua zuten hori erabat"

"Helduok kontzientzia izan behar dugu. Guk izan behar dugu eredu zeren hala ez bada, haurrek ingelesa ikasten duten moduan ikasiko dute euskaraz. Eta nik, zoritxarrez, helduak ez ditut eredu ikusten"

dut, eta alde horretatik, pozgarria izan da. Eta saria ere etorri da. Baina poz handiekin bihotzak krak egiten ahal du, kasu eman behar da.

Liburua argitaratu duzu: 'Har 3 minutu zuretako'. Eta irakasle lanak erabat alboratu gabe, orain reiki-a eta norbere burua zaintzeko ariketak irakasten aritzen zara, ezta?

Pertsoneri erakutsi nahi diet euren buruari hiru minutu eskaintzeak zer nolako abantailak eta onurak ekarri ahal dizkien. Reiki ikastera etortzen direnei esaten diet lehenik egiteko liburuan agertzen diren ariketak, eta gero, bigarren urratsa izango dela reiki ikastea. *Ki* hori gure energia da. Euskaraz *hiz* izena duela esan didate. Gu gai gira indar, kemen, energia hori, neurri batean iratzartzeko eta hiru minutu aski dira horretarako. Durangoko Azokan izan naiz berriki liburua aurkezten eta han pertsona batzuekin hiru minutuz ariketak egin ondoren, euren minak eztitu ziren. Gure baitan izugarritzko ahalak ditugu, sinetsezinak. Zentzumen guztiekin landu ditzakegu ahal horiek.

Nola heldu zinen reiki-aren mundura?

1995ean zilo handi batean sartu nintzen. Infernua esaten diot nik. Zerbaiten bila nengil, ez nuen farmazia hustu nahi soilik. Donostiara joan nintzen egun batean reiki hitza entzun nuen lehen aldiz, zer zen ezagutu, eta reikiari lotu nintzaion. Onura ikaragarriak ekartzen ditu: haurren tripako minak bi minututan desagertzen dira, adibidez. Hasiera hartan, batez ere, nire burua artatu nuen. Aurrerago, 2019an, apnea egiten nuen eta hor hasi zen hiru minutuko ariketen planteamendua, guretzako hiru minutu hartzearen ibilbidea. Hiru minututan egiteko ariketa errazak dira, oso onuragarriak dira, baina norberak egin behar ditu. Bakoitzak bere buruari eskaini diezazkiokeen une txikiak dira. Gure gorputzaren %60 ura da eta oso garrantzitsua da ur hori mugitzea. Ez dugu gure gorputzaren kontzientziarik batere. Denbora batez, zentro batean egin dut reiki, adineko emazteekin gehienbat, ordu erdiz. Baina hartzailak ziren beti eta orain hori amaitu da. Orain nahi dudana da haiek egin

dezatela ekintza beren gorputzarentzat eta beren izpirituarentzat. Ezin gara beti zain egon gauzak noiz iritsiko. Bila joan behar dugu.

Eta orain hiru minutuz egiteko ariketak proposatzen dituzu.

Bai. Guk mugitu behar ditugu gure gorputza eta gure barneko ura. Eta hori ikasten dugun egunean, sendagileen erdiak beharko ditugu. Sendagileek erakutsi didate niri: hortzak hiru minutuz garbitu egunean hiru aldiz, antibiotikoa egunean hiru aldiz hartu, naturak hiru hilabeteko urtarok ditu, 21 egunetan ateratzen da txita... Hiru zenbakia etengabe errepikatzen da bizitzako hainbat arlotan eta aski dira hiru minutu onurak ikusteko. Nik bost zentzumenak lotu ditut hiru minutu horiekin eta bakoitza lantzeko ariketak proposatu ditut. Hiru minutuz ariketaz, ariketak hiru minutuz egitea oso garrantzitsua da. Edozein lan egiten hasi aurretik barneko ura mugitzeko, kanpoko gauzeekin mozteko eta geure buruari eskerrak emateko, guretzako hiru minutu hartuko bagenitu, hobeto

egongo ginateke. Gerora reiki egin nahi dutenek, beste urrats bat egin dezakete, baina hiru minutu eskaini behar dizkiegu bost zentzumenei. Mina dugunean oroitzen gara gorputzaz, baina gure atal guztiak eskertu behar ditugu. Naturak eskaintzen dizkigun altxorak hain agerian dira, askotan ez ditugula ikusi ere egiten.

Hiru minutuz egiteko ariketa horiek haurrekin ere egin daitezke eskoletan?

Bai. Bistan da. Jolas modura planteatu daitezke haur txikiekin. Berehala doa denbora eta gorputzeko atal guztiak pasa baino lehen pasatu dira jada hiru minutu horiek. Haurrak asko erlaxatzen dira eta ahaztu egiten dute etxetik zekarten guztia. Eguna hasteko modu bikaina da. Idazten ari direla eta nekata daudela? Edo ordenagailu aurrean denbora asko eman dutela? Geldialdi bat egin dezakegu eta gorputza astindu. Oso garrantzitsua da gure barneko ura mugitzea, baita haurrentzat ere. Gauza errazak dira, eta ni prest nago jendeari erakusteko.





zientzia azoka



Izena emateko
epea zabalik,
2022ko
urtarrilaren 10etik
aurrera

zientzia-azoka.elhuyar.eus



ELHUYAR ZIENTZIA AZOKA

2021-2022

EMAN IZENA!

elhuyar
ezagutuz aldatzea

Babesleak



Kolaboratzaileak



ESPERIENTZIAK

PANTAILAK AISIALDIAN BAZTERTUTA

Hamar eguneko barau digitala

Aisialdian pantailarik gabe bizitzea posible dela ikusarazteko 'Hamar egun pantailarik gabe' izeneko erronka egiten dute Ipar Euskal Herriko 12 eskolatan, horien artean Urruñako San Frantses Xabier eskolan. Horren berri eman zigun Eneko Jorajuria bertako irakasleak **Hik Hasik** antolatuta, azaroaren 20an Zumaian izan zen 'Pantailak 0-6an. Zertarako?' izeneko jardunaldian. 2017az geroztik, urtero egiten dute erronka eta helburu argia du: familiei aisialdian pantailak hobeto kontrolatzen eta bizimodu osasuntsuagoa hartzen laguntzea.

Animaliak etengabe mugitzen ari diren bitartean, gizaki txikiak gero eta gehiago esertzen dira, eta nekez kentzen dituzte begiak pantailatik. Zer pentsatua ematen duen esaldi horrekin eman zion hasiera Eneko Jorajuria Urruñako San Frantses Xabier eskolako irakasleak *Hamar egun pantailarik gabe* ekimenaren azalpenari. Datu argigarriak eskaini zituen Jorajuriak: Mendebaldeko haurrek 2 urtetik aurrera, hiru ordu ematen dituzte egunero pantailaren aurrean eta adinean aurrera egin ahala, ordu kopurua ere hazi egiten da: “Ama eskolan, haurrek 1.000 ordu inguru pasatzen dituzte aisialdiko pantailen aitzinean eta kopuru hori emendatzen da, urtez urte. Lehen Hezkuntzako haurrek 1.700 ordu pilatzen dituzte; eskolan pasatzen duten denboraren bikoitza pasatzen dute pantailaren aitzinean. Emaizta astronomikoak dira. Frantses Kardiologia Federakuntzako haurrak ez direla asko mugitzen: 40 urtetan gaitasun fisikoen % 25 inguru galdu dute. Beraz, berriro mugitzen hasi behar dugu eta pantailen aurrean ematen dugun denbora saihestu edo mugatu behar dugu”.

Ohitura hobek hartzen lagunduz

Nola lagundu ditzakegu haurrak eta nerabeak ohitura hobek hartzen? Bada, *Hamar egun pantailarik gabe* moduko erronkak egitea izan liteke bidea. Hala azaldu zuen Jorajuriak: “Deskonexio digitala ariketa kolektiboa da eta emaitza harrigarriak ditu. Hainbat astez prestatu ondoren, haurrek eta nerabeek, gurasoek, anai-arrebek, irakasleek eta komunitateak

lagunduta, hamar eguneko barau digitala egitea erabakitzen dute. Egun horietan ez da aisialdiko pantailarik (lanerako erabil daitezke) eta horren truke, haienzako hainbat jarduera antolatzen dituzte. Pantailarik gabeko erronkak dibertigarria izan behar du eta aurkari handien kontrako maila handiko partida gisa aurkezten dugu. Eta partida horretan, puntuak pilatzen doaz. Erronkak iraun bitartean



bakoitzak bere egunkaria idatziko du. Irakasleek prestakuntza jarduerak egiten dituzte klaseetan, eta guraso boluntarioek amaierako festa prestatzen dute eta azken galdetegiaren erantzunak biltzen dituzte”.

Irakasleek hainbat jarduera pedagogiko prestatzen dituzte ikasleek pantailatik deskonektatzeko nahia eta ahala bereganatzen joan daitezen, eta, era horretan, pantailak euren bizitzan duen lekuaz jabetzen dira. Aisialdiko pantailen aurrean denbora gehiegi pasatzeak dakartzan ondorioak eta hori murriztearen onurak azaltzen dizkiete: “Euren bizi ohituraz ohartzen dira: jarduera fisikoa, loa, irakurketa... eta pantailarik gabe egitea gustatzen zaizkien jarduerak zerrendatzen dituzte. Baita norekin egitea gustatzen zaien ere. Bestalde, bideo joko bortitzek garunean eta portaeran nola eragin dezaketen ikasten dute. Haur handiagoei, pantaila eta haien atzean lan egiten duten profesionali buruzko galderak egiten zaizkie. Zergatik kentzen diguten hainbeste denbora, zergatik nahi duten gure arreta maizago eta luzaroz bereganatu, eta nola jokatzeko duten profesionalak horra heltzeko. Ikusten dute industriari ahaleginak egiten dituela gazteak bere menpe atxikitzeko eta adimen psikikoa zorrotzen dute, adierazpen gaitasuna eta askatasuna lantzen dituzte, bere iritzia ematera gonbidatzen ditugu eta beste ikasleak pantailen kontsumoa kontrolatzen bultzatzeko argudioak prestatzera bultzatzen ditugu”, azaldu zuen Jorajuriak.

3 eta 11 urte bitarteko haurrekin egiten dute erronka, bereziki egokia baita adin horietan: “Lehen egunean haur guztiak biltzen dituen zeremonia handi bat egiten dugu. Haurrek pantailak modu sinbolikoan deskonektatzen dituzte eta nagusienak kirolariz jantzen dira desafioarekin sedentarisismoaren kontra aritu nahi dugula ikusarazteko. Kontagailua ere ezartzen dugu, puntuak pilatzeko”.

Irakasleak eta gurasoak ere pantailarik gabe

Baina ikasleak ez dira pantailak hamar egunerako alboratzen dituzten bakarrak: “Irakasleek ere desafioan



parte hartzen dute, pantailak uztea ez diegu soilik ikasleei galdegiten. Eta gurasoek ere parte hartzen dute, hala nahi badute”. Balorazio ezin hobea egiten dute denek hamar egun horien ondoren: desafioaren ondotik gurasoen % 84k dio pantailen denbora hobeto kontrolatzen laguntzen diela eta % 97k eskolak erronka errepikatzea nahi izaten du. Irakasleen gehiengoak ere esperientzia oso erabilgarria dela uste du: % 96k uste du emaitza oso ona dela eta pedagogikoki onuragarria da gehiengoaren iritziz.

Haurrak ez dituzte desafioan parte hartzera behartzen, nahi duenak parte hartzen du baina parte hartze tasa handia lortzen dute. Denek ez dute ez lortzen hamar egunez pantailak

osoki baztertzea, baina % 80k zazpi egun bederen lortzen ditu, eta % 44k desafioa osatzea lortzen du.

Onura handiak ekartzen ditu erronkak Jorajuriaren hitzetan: “Haurrek aisialdirako pantaila denbora gutxiago pasatzen dutelarik, gizentasuna txikitzen da, eta jokabide bortitza eta kontsumorako joera murrizten dira. Era berean, publizitatearen eragina murrizten du, norberaren eta gorputzaren irudi positiboa sustatzen du eta pantailaren gehiegizko erabilera saihesten du”.

Hamar egun. Ez da gehiago behar aisialdia beste era batera antola dezakegula ikusteko. Pantailak inguratuta bizi arren, beste modu batera bizi gaitzkeenaz ohartzeko.

EKARPENAK

IKASKUNTZA KOOPERATIBOA

Ikaskuntza kooperatiboa, aniztasunari erantzuteko eta eskola inklusiborantz gerturatze bidean

Ikaskuntza kooperatiboak dituen onurak asko dira eta horiei buruz idatzi du Naroa Fernándezek hurrengo lerroetan. Lankidetzan, elkartasunean, eskuzabaltasunez edota errespetuz aritzeak ikasleen arteko harreman positiboa bultzatzen du. Ikaskuntza kooperatiboa denean, gainera, ikasleak beren garapenaren protagonista bihurtzen direla eta ikasleen arteko giro ona sortzen dela dio Fernándezek.

Ikaskuntza kooperatiboa entzutean, kooperazioan elkarrekin ikasten ditugun ezagutza berriak etortzen zaizkigu gogora. Pujolásek (2009) dioenez, ikaskuntza kooperatiboak inklusiorantz bideratzen laguntzen du. Gainera, hezkuntza-jarduerak bakarka edo era lehiakorrean egituratuta eta antolatuta daudenean baino inklusiboagoak dira horrela. Ikaskuntza kooperatiboa gauzatu dadin, guretzat oso garrantzitsua da lankidetzan aritzea. Hots, elkartasunean, eskuzabaltasunez, solidaritatez, errespetuz, elkarri lagunduz... beste gauza askoren artean, eta, betiere, ikasle guztien ikasketa bultzatuz.

Pujolás eta Lagok (2009) ere horixe diote, ikasle guztien ikaskuntza bultzatu behar dela ikaskuntza kooperatiboaren bitartez, eta ez soilik ikasteko zailtasunak dituzten ikasleena. Bestalde, ikaskuntza kooperatiboek ikasle guztien parte-hartzea sustatzen dute. Izan ere, ikasleak beren garapenaren protagonista bilakatzen dira. Horrek guztiak eragin positiboa du ikasleen arteko harremanetan, haien



NAROA FERNÁNDEZ Lehen Hezkuntzako irakaslea

artean giro ona sortzen laguntzen baitu.

Ikaskuntza kooperatiboaren bitartez, ikaskideekin talde-lanean aritzean, areagotu egiten da haiengandik ikasteko aukera, talde txiki heterogeneoetan banatuta eta elkarri lagunduz jarduten baitute, irakasleak irakatsitakoa barnertzeaz

gain; elkar aintzat hartuta, elkarri lagunduz, jarduerak elkarrekin garatuz... haien arteko mendekotasun positiboa areagotzen da. Hortaz, jarduera indibidualekin alderatuz gero, desberdintasun handia dagoela sumatu genezake. Izan ere, bakarka ari direnean, bakoitzak bereari begiratzen dio, inor aintzat hartu gabe, lehiakortasuna areagotuz, elkarri lagundu gabe... besteak beste. Horregatik, arestian esan bezala, ikaskuntza kooperatiboak inklusiorako bidea errazten duela uste dugu.

Spencer Kaganek (1990, Pujolás eta Lago 2009tik jasoa) dio, ikasketa kooperatiboa ikasle talde txikien osaketa heterogeneoari (gehienetan), errendimenduari eta ahalmenari dagokiela. Horien bitartez, berdintasunezko parte-hartzea ahal den gehien ziurtatzea (taldekide guztiek partaidetzarako aukera berdina izanda), elkarreragina indartzea, taldean lan egiten ikastea eta taldekide guztien proposamenak kontuan hartzea ahalbidetzen du ikasketa mota horrek.

Ikaskuntza kooperatiboaren hainbat

alderdi nabarmentzen ditu Kaganek. Haren ustez, hasteko, ikaskuntza mota horretan, taldeko kideek erantzukizun bikoitza dute: batetik, irakasleak irakatsitakoa barneratzea eta, bestetik, taldekideek ere beste horrenbeste egitea. Eta gainera, arestian aipatu bezala, ikasleek, talde-lanaz baliaturik, solidaritatez lan egiten ikasten dute.

Beraz, ikaskuntza benetan kooperatiboa den erabakitzeke, ondorengo aldagai eta irizpide hauek izango ditugu kontuan:

- Lankidetzaz
- Jarduera lehiakorretik inklusiorako jauzia
- Giro onaren eragina harremanetan
- Ikasle guztien parte-hartzea

Vygotskyk (1978) dio elkarrekintzan aritzeko beharrezkoa dela taldean onartua izatea, eta lehendabiziko pausoa bakoitzak bere burua onartzea dela. Horretarako, irakasleek ikasgelan giro egokia sortzea oso garrantzitsua da, ikaslearen ongizatea bermatzeko. Ideia horrekin nolabait lotuta, Saratxagak (2014) dio aniztasunaren garrantzia ezinbestekoa dela kooperazioan lanean aritzerakoan. Izan ere, pertsona orok duen onena eskaintzen du.

Ríosek (2012) honela definitzen du ikaskuntza kooperatiboa: jardueran parte hartzen ari direnen artean aurkaritzarik ez dagoen talde-jardura. Ikaskuntza kooperatiboan, norbaitek helburua lortuz gero, gainerako guztiak ere lortzen dute.

Martínezek (2005) dioenez, kooperazioan aritzeak bakarkako lanak ez dituen abantailak ditu, taldearekin eta taldearentzat ikasten laguntzen duelako, erlazio sozialak garatzen diren bitartean. Kasu batzuetan, irakasleak ikasleak gidatu beharko ditu, jarduera indibidualak garatuz, baina, beste batzuetan, talde-lanean esperimendatzen utzi beharko die.

Hortaz, Martínezen beraren ustez, ikaskuntza kooperatiboak ikasleei kooperazioan esperimendatzeko aukera emateaz gain, arauen garrantziaz ohartzen, desberdintasunak eta eskubideak errespetatzen, gatazkak beren kabuz konpontzen... ikasteko aukera ere ematen die. Eta horrek guztiak lanketa egoki bat behar du, aniztasuna kontuan hartuta.



Ikasleak ez dira eskolara ikasiak joaten, eta gauzak ikasteko erritmo desberdina dute. Hortaz, argi ikus daitekeenez, prozesua akatsez beterik dago, eta ikasleek horietatik ikasteko esparru paregabea da kooperazioa. Izan ere, ikaskuntza kooperatiboaren bitartez, ikasleek askotariko erantzunen inguruan taldean hausnartzeko aukera dute, guztien ezaugarriak kontuan izanik.

Ikaskuntza kooperatiboa funtsezko ardatza da. Freirek (1970) dio gaitasunak taldean eraikitzea ezinbestekoa dela. Hori esanda, aukera ematen du honetaz hausnartzeko: gizakiaren jardura ez da indibiduala, eta funtsezkoa da elkarrengandik ikastea. Hortaz, ikaskuntza kooperatiboan, berebiziko garrantzia du ikasle guztien partaidetza sustatzeak.

Vygotskyk antzeko ideia defendatzen du: bestearekin elkarrekintzan hazi eta ikastea dela harreman sozialaren ardatz nagusia. Hori guztia gutxi balitz, gizabanakoek beren gaitasunak garatzea ahalbidetzen du, lankidetzaren bitartez. Harremanak garapenaren eragile eta motorra dira.

Aipatzekoa da, halaber, Johnson, Johnson eta Holubec-ek (1994) ikaskuntza kooperatiboa talde txikien erabilera didaktikotzat definitzen dutela. Ikasleek elkarrekin lan egiten dute, beraien eta ikaskideen ikaste-prozesuan hobekuntzak areagotzeko. Hori behar bezala bermatzeko,

beharrezkoa da helburu komun bat izatea (taldekide bakoitzak helburuaren inguruan daukan irudikapena partekatuz). Horrela, ikasleen artean elkarrenganako mendekotasun positiboa sortzen da, norbanakoaren lorpenak taldearen lorpenarekin lotuta baitaude. Hori dela eta, bakoitzaren lana aurrera eramateko, gainerako ikaskideak behar dira, eta, helburua lortzeko, funtsezkoa da norbanakoaren ezaugarriak kontuan hartzea eta aniztasunari erreparatzea.

Artetxek, Usabiagak eta Bilbatuak (2012) diote, ikaskuntza benetan kooperatiboa izan dadin, ez dela nahikoa ikasleak taldeetan jartzea, ikaskuntza-prozesua elkarrekin egitea dela kontua, eta, horretarako, beharrezkoa dela lau puntu betetzea: helburu komun bat izatea (norbanakoak helburuaren inguruko irudikapena partekatzea), bat-bateko komunikazioa (erabakiak hartzeko), bakarkako erantzukizunak izatea eta, Johnson, Johnson eta Holubecen (1994) antzera, elkarrekiko mendekotasun positiboa (pertsona bakoitzak gainerakoen beharra du bere lana aurrera ateratzeko, eta taldeak, berriz, kide guztiena); diote beharrezkoa dela hori guztia, aniztasuna kontuan hartuta ikaskuntza kooperatiboa sustatzeko.

Duránek (2003, Pujolás eta Lago 2009tik jaso) ikaskuntza kooperatiboa talde-lanaren barruko atala dela dio, taldeko edo ikasgelako kideen arteko elkarrengandikotasunaren planifikatzea

EKARPENAK: IKASKUNTZA KOOPERATIBOA

eskatzen duena. Kooperazioak plus bat eranstean dio lankidetzari; hau da, elkarrekin lan egite soilari elkartasuna, elkarren arteko laguntza eta eskuzabaltasuna eranstean dizkio. Hori dela eta, talde kooperatibo bateko kideen artean ezartzen den harremana askoz sakonagoa da afektiboki. Ildo horretatik, partaideen ongizatea lortzen da, autokontzeptu positiboa garatzen delako. Gainera, denen partaidetza beharrezkoa denez helburura iristeko, giza harremanak hobetzen dira, sormenean eta kulturen artean aurrera egiten da, eta motrizitatearen garapena ere hobetzen da.

Duránen ustez, era asko daude ikaskuntza kooperatiboan aritzeko:

- Jolas kooperatiboak. Helburu bera izanda, taldekideen arteko harremanak hobetzen dituzten eta mugimendua eskatzen duten jolasak dira.

- Ikaskuntza kooperatiboa. Ekintza antolatzeke moduari esaten zaio; jarduerak elkarrekiko mendekotasunez eta koordinatuta garatzeko prozesuari.

Ikaskuntza kooperatiboetan, talde handiak talde txikiagoetan eta heterogeneoetan banatzen dira, eta taldeak finko mantentzen dira. Rolak banaketa egon daiteke, estatus mailak

areagotu gabe, eta elkarrekotasun-harremanak bultzatzen dira. Eraitza, ikaslearentzat ez ezik, taldearentzat ere bada. Askotariko metodologiak erabil daitezke: kideen arteko tutoretzak, elkarren arteko irakaskuntza, talde kooperatiboetan oinarritutako irakaskuntza, arazoaren ebazpena talde kooperatiboetan ardaztuta, kooperazio-proiektuak, arazoetan oinarritutako irakaskuntza eta ipuina motor kooperatibo gisa; horrela, umeak erronka edo abentura batean murgiltzen dira, eta taldean kooperatzen dute guztiak batera.

Omeñacak (2001, Pozas eta Zurita 2010etik jasoa) dioenez, askotariko gaitasunak dituzten ikasleek trebetasun motor, kognitibo, afektibo eta sozialak hobetzeko, beharrezkoa da ikaskuntza kooperatiboaz baliatzea. Adituaren iritziz, hori da kooperatzea, pertsonarekiko errespetua, individualismoarekiko haustura, besteekiko konfiantza, prozesuan zehar gaitasunak gainerakoekin partekatzeke gogoa, egozentrismoa menderatzeko gaitasuna, taldekatzeetan ardurak hartzeko gaitasuna eta tolerantzia.

Velázquezek (2007) dioenez, ikaskuntza kooperatiboaren helburua ez da gainerakoak baino hobea izatea. Aitzitik, elkarlanaren bitartez erronkei aurre eginez ikastea da xedea, ikasleek erabakiak beren kabuz era autonomoan hartuz. Ildo horretatik, haurrek hainbat balio kontuan hartu beharko dituztela aintzat hartuta: inklusioa, solidaritatea, elkarren arteko laguntza... Horiek guztiak lantzeko aukera ematen du, hots, aniztasunari trataera egokia emateko.

Rierak (2011) dio, hezkuntza inklusiboaren alde egiteko eta ikasgelako aniztasunari erantzuteko, beharrezkoa dela ikaskuntza kooperatiboaren metodologiak baliatzea. Besteak beste, elkar errespetatzeko, bizikidetzeta sustatzeko, elkarrekiko desberdintasunak balioztatzeke...

Erreferentzia bibliografikoak

- ARTETXE, A.; USABIAGA, A.; BILBATUA, M. (2012). "Ikasleek ikaskide taldeak eta irakasleek ikas-

sarea". Jakingarriak, 71, 28-33. <http://www.jakingarriak.com/wp-content/uploads/2013/02/71aldizkaria-3art.pdf>

- FREIRE, P. (1970). *Pedagogía del oprimido*. Madril: Siglo XXI.

- JOHNSON, D.W.; JOHNSON, R.T., eta HOLUBEC, E.J. (1994). *Los nuevos círculos del aprendizaje. La cooperación en el aula y la escuela*. Capital Federal (Argentina): Aique.

- MARTÍNEZ, L. (2005). "Capítulo VII. La lección de Educación Física: buscando la coherencia entre las ideas pedagógicas y la construcción de escenarios educativos". *EUE de Palencia*. Valladolid: Unibertsitatea, 72-188.

- POZAS, D; ZURITA M. (2010). "El juego cooperativo como medio de fomento de valores en las clases de educación física en primaria en las escuelas profesionales sagrada familia". *II congreso internacional de didácticas*. 235, 1-9.

- PUJOLÁS, P. (2009). "Aprendizaje cooperativo y educación inclusiva: una forma práctica de aprender juntos alumnos diferentes". *Vic-eko Unibertsitatea*, 1-59.

- PUJOLÁS, P.; LAGO, J. (2009). *IK/KI programa («Ikasteko Kooperatu / Kooperatzen Ikasi»)* taldean ikasten irakasteko. *Ikasketa kooperatiboaren inplementazioa ikasgelan*. 1-137.

- RIERA, G. (2011). "El aprendizaje cooperativo como metodología clave para dar respuesta a la diversidad del alumnado desde un enfoque inclusivo". *Revista Latinoamericana de Inclusión Educativa*, 5(2), 133-149.

- RÍOS, M. (2012). "Inclusión del alumnado con discapacidad". *Didáctica de la Educación Física* 38; 7-18.

- SARATXAGA, K. (2014). *Albisteak*. <http://www.hikhasi.com/albiste.php?id=896>

- VELAZQUEZ, C. (2007). *El aprendizaje cooperativo en educación física: qué, para qué, por qué y cómo*. Azken kontsulta: 2015-03-04. Iturria: https://www.academia.edu/3029282/El_aprendizaje_cooperativo_en_educaci%C3%B3n_f%C3%ADsica_qu%C3%A9_para_qu%C3%A9_por_qu%C3%A9_y_c%C3%B3mo.

- VYGOTSKY, L. S. (1978). *Pensamiento y lenguaje*. Madril: Paidós.

Vygotskyk antzeko ideia defendatzen du: bestearekin elkarrekintzan hazi eta ikastea dela harreman sozialen ardatz nagusia. Hori guztia gutxi balitz, gizabanakoek beren gaitasunak garatzea ahalbidetzen du, lankidetzaren bitartez. Harremanak garapenaren eragile eta motorra dira.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

AURREMATRIKULA URTARRILAREN 17^{TIK} 28^{RA}

www.euskadi.eus/hezkuntza

ZURE ZAIN GAUDE

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKARPENAK

AUTISMOA

Autismoaren espektro-nahasmenek haurren hezkuntza-prozesuaren baitan sortzen duen eragina: profesionalen eta guraso edota tutoreen arteko komunikazioaren azterketa

Ane Campos Sáez Gizarte Hezkuntzako ikasleak autismoaren espektro-nahasmenek haurren hezkuntza-prozesuaren baitan sortzen duen eragina aztertu zuen Gradu Amaierako Lanean. Gipuzkoako gela egonkorretan dauden ikasleen kasuan, irakasleen eta guraso edota tutoreen arteko komunikazioa nolakoa den aztertu ondoren, Camposek proposamena egin zuen, aurrerantzean komunikazio hori hobea izan dadin. Ikerketa-lanaren nondik norakoak eta komunikazioa eraginkorragoa izan dadin egindako proposamena laburbildu ditu lerrootan.

Autismoaren Espektroko Nahasmena duten pertsonen senideen elkarteak da Gautena. Autismoaren Espektroko Nahasmena edo desgaitasun intelektuala eta garapen-desgaitasuna duten pertsonen eta euren familiek erabateko bizi-kalitatea lortzeko aukera izan dezaten egiten du lan elkarteak. Eta Gautenak berak kudeatzen ditu Gipuzkoako gela egonkorak. Ikasketetako praktikak Gautenako gela egonkorrean egin nituen, eta ondoren, hezkuntza-premia berezietan interes handia dudanez, gai horren gaineko ikerketa abiatu nuen. Zehazki, Gautenako gela egonkorreko haurren hezkuntza-prozesuan familiaren eta profesionalen arteko komunikazioak garrantzi handia duela ikusita abiatu nuen ikerketa.



ANE CAMPOS SÁEZ
Gizarte Hezkuntzako ikaslea

Hasiera batean, gela horietan erabiltzen diren komunikazio-bideen azterketa egin nuen, eta, ondoren, komunikazio hori eraginkorragoa izan dadin, elkarlanerako txantiloak sortu nituen. Lanaren abiapuntua honako hipotesi hau izan zen: elkarlanerako txantiloien erabilerarekin eta gizarte-hezitzaileen laguntzarekin, profesionalen eta familien arteko komunikazioa indartuko da. Prozesuan zehar oso garrantzitsua izan zen tutorearen edo zuzendariaren laguntza, eta gerora ikusi dugu txantiloia haurren kontrol emozionalerako baliagarria izan daitekeela.

Esku-hartze programa

Ikerketa abiarazteko, esku-hartze programa jarri nuen martxan.

Autismoaren Espektroko Nahasmene-



dua (AEN) Lorna Wing-ek sortutako terminoa da. AEN neurogarapenean gertatzen diren nahasmenen multzoa da, eta adierazpen kliniko asko eta ezaugarri komun hauek partekatzen dituzte nahasmen horiek guztiak: gizarte-harremana, komunikazioa eta interesak. Horrez gain, Garapenaren Nahasmendu Orokortuen (GNO) taldearen barruan, GNO nahasmendu autista, Asperger sindromea eta zehaztu gabeko GNOak dituen azpitaldea irudikatzen dira (Miguel, 2013, 13. or.).

Asperger sindromeak eta autismoak antzeko ezaugarriak dituzte. Baina Asperger sindromea dutenek haurtzarora ez dute atzerapenik hizkuntzaren garapenean, eta autismoa duten haurrek atzerapen larriak eta hitz egiteko zailtasunak izaten dituzte (Hernández et al., 2011 Miguelek aipatua, 2013, 17. or.).

Asperger sindromearen kasu guztiak hizkuntzaren nahasmendu pragmatikoa dute. Nahasmendu mota horrek ezaugarri hauetako batzuk ditu (Artigás et al., 2011 Miguelek aipatua, 2013, 18. or.): hitz egiteko txandak ez dituzte errespetatzen elkarrizketetan; haurrak bere irizpide eta iritzia araberan aldatzen du gaia; autismoa duten haurrek bezala, hizkuntza hitzez hitz ulertzen dute, eta ez dituzte txantxak, ironia, zentzu bikoitzak edota metaforak ulertzen. Asperger sindromea duen pertsona ez da konturatzen besteek ez dutela bere mezua ulertzen.

Gela egonkorrak

Tradizioz, gizarteak, eta eskola-sistemak bereziki, desberdintzat jotzen diren gizabanakoak baztertu ditu (Vasco, 1998, 7. or.). Gela egonkorrei dagokienez, hezkuntza-premia bereziak dituztenen gelei dagokienez, ikasle horiei laguntza handia eskaintzen diete: “Gela egonkorra, eskola-testuinguru arruntan funtzionatzeko arreta desberdindua, oso arreta indibidualizatua eta burutzen dituzten zereginak gainbegiratzea nahiz, sarritan, laguntza behar duten ikasle batzuentzako beharrezko laguntza da”. (Sáinz, 1998, 12. or.).

Hauek dira gela egonkorren izaera definitzen duten ezaugarriak:

- Tutore espezializatua dute.
- Bertan lan egiteko eskatzen duten espezialitatea Pedagogia Terapeutikoa da.
- Gelan laguntzaile bat egon ohi da.
- Ratioa lauzpabost ikaslekoa da.
- Curriculumaren egokitzapena eskatzen du.
- Curriculuma garatzeko material eta ekipamendu berezia behar du.
- Ikastetxe arruntetan integratutako espazio fisiko propioa eskatzen du.
- Espazioak, ordutegiak, egutegia... partekatzen ditu eskolarekin.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak ikastetxe arruntetan integrazteak premia horiei erantzuna emateko helburua duten hezkuntza-esperientzien garapena bultzatu du. Hezkuntza-esperientziak abiarazi dira, metodologia desberdinak garatu dira, curriculum-

-materialak landu dira eta curriculum-egokitzapenak egin dira.

UNESCOren arabera, hezkuntza-arloan guztion aukera-berdintasuna bermatzea erronka handia da mundu-mailan. Hezkuntza giza eskubide bat da, eta garapen jasangarriko 2030 agendak azpimarratzen du berdintasuna eta inklusioa ezinbesteko ezaugarriak direla kalitatezko hezkuntza izateko (UNESCO, 2019).

Gizarte-hezitzaileen beharra eta garrantzia ikastetxeetan. Zergatik egon behar dute gizarte-hezitzaileek ikastetxeetan?

Gizarte-hezitzaileek honela definitzen dute Gizarte Hezkuntza: “Herritarren eskubidea, izaera pedagogikoa duen lanbide bat aitortzean gauzatzen dena. Gizarte-hezitzaileen lanbide-gaitasunaren esparru diren hezkuntza-testuinguruak eta bitartekaritza eta prestakuntza-ekintzak sortzen dituen”. (Zaguirre, 2012, 1. or)

Hori dela eta, oso garrantzitsua da gizarte-hezitzaileen funtzio orokorrak kontuan hartzea. Izan ere, esparru orokor horretan kokatzen dira eskola-esparruan garatzen dituzten berariazko funtzioak (Zaguirre, 2012, 2. or.):

- Kulturaren transmisioa, garapena eta sustapena.
- Sare sozialak, testuinguruak, prozesuak eta hezkuntza- eta gizarte-baliabideak sortzea.
- Gizarte-, kultura- eta hezkuntza-bitartekaritza.
- Gizarte- eta hezkuntza-testuinguruak

Hezkuntza giza eskubide bat da, eta autismoa duten pertsonak ere hezkuntzarako eskubidea dute. Egia da, askotan, ez direla gizartearen parte izaten, baina beharrezkoa da uste okerrak baztertzea

EKARPENAK: AUTISMOA

DATA: 20. korena

GELA				GUSTURA	URDURI
GOIZA	LANA				
	HAMAIKETAKOA				
	PATIOA				
JANGELA				ONDO	GAIZKI
EGUERDIA	Nola jan du?	Bakarrik			
		Laguntzarekin			
	Nola egon da?				
GELA				GUSTURA	URDURI
ARRATSALDEA	ERLAXAZIOA				
	SALTO GELA				
	AISIALDIA				
WC					
	Kaka egin du?	Bai			
		Ez			
BESTELAKOAK					
ABISUAK ETA ESKARIAK					

1. taula

ezagutzea, aztertzea eta ikertzea.

- Hezkuntza-programak eta -proiektuak diseinatzea, ezartzea eta ebaluatzea.
- Hezkuntza-erakundeak eta -baliabideak kudeatzea, zuzentzea, koordinatzea eta antolatzea.

Egungo gizartea gero eta konplexuagoa da, eta ikastetxeak ere bai. Eguneroko arazoak sakonki ezagutzen dituzten pertsonak behar dira, arazo horiei aurrea hartzeko eta irtenbideak bilatzeko. Betiere, hezkuntza komunitateko beste kideekiko lankidetzeta eta komunikazioa oinarri hartuta, hezkuntza-sistemaren kalitatea bermatzeko. Arrazoi ekonomikoak, familiarak eta beste edozein motatakoak direla-eta gizarteratzeko zailtasunak dituzten gazteak identifikatzeko, espazio normalizatuetatik jardun behar da, hala nola, eskolatik. (Zaguirre, 2012, 3. or.)

Behar bereziak dituzten pertsonenkin lan egiten denean, oso garrantzitsua da

haien inguruarekin komunikazioa izatea. Practicumean egindako behaketan oinarrituta ikusi nuen Gautenako gela egonkorretan irakasleek eta gurasoek egunerokoan izaten duten komunikazio-bide bakarra koaderno bidezkoa dela, ikasturtean zehar bilerak egiten dituzten arren. Gurasoek, normalean, ez dute koaderno horretan ezer idazten. Lau galderaz osatutako galdetegia proposatu nien irakasleei, beti ere euren arteko komunikazioa hobetzeko helburuz:

1. Gurasoekin komunikatzeko koaderno erabiltzen al duzue?
2. Erantzuna ezezkkoa bada, zer beste metodo erabiltzen duzue?
3. Gidoi bati jarraituz edo modu librean idazten dira koaderno horiek?
4. Baliagarria al da koadernoaren erabilera?

Gurasoek haurrak benetan zer egoratan dauden jakinarazi behar diete

profesionalei, haiak baitira haurrekin denbora gehien pasatzen dutenak.

Baina antzeman genuen gurasoak ez datozela bat profesionalen beharrekin.

Elkarlanerako txantiloiak

Komunikazioan hutsune hori zegoela ikusita, elkarlanerako txantiloiak sortu genituen ikasleen jarraipena egiteko, eta eskolak zein familiak uneoro informazioa izan dezaten. Euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzen dira txantiloiak, eta bi zatitan banatuta daude. Lehenik eta behin, gelako errutina azalduko da. Goizeko lehen tartean bakarkako lanak egiten dituzte, ondoren hamaiketako egiten dute, eta, azkenik, jolastokira jaisten dira. Horregatik, item bakoitzaren ondoan, eginbeharrak bakarrik edo laguntzarekin egin dituzten aipatzen da, eta azkeneko kasuan, ea jolastokian bakarrik, profesionalekin edo beste haurrekin egon diren. Jangelan, haurrak nola jan duen eta jateko orduan nola egon den aipatzen da. Arratsaldean, berriz, erlaxazioan, salto gelan eta aisialdian gustura edo urduri egon diren. Horrez gain, WC izeneko beste atal batean, ikasleak egunean zehar kaka egin duen edo ez aipatzen da. (Ikus 1. taula).

Bigarrenik, etxeko errutina azalduko da beste txantilo batean. Haurrak familiarekin egoten dira eskolatik ateratzean eta, normalean, eskolaz kanpoko ekintzak izaten dituzte. Ekintza horiek egin bitartean pozik edo urduri sentitu diren markatu behar dute etxekoek. Garrantzitsua da familiarekin duten harremanari buruzko informazioa jasotzea, eta hori ere aipatzen da beste atal batean. Loaren garrantzia kontuan izanik, lo nola egin duten ere jasotzen da. WC izeneko atalean, etxean kaka egin duten edo ez aipatzen da. (Ikus 2. taula).

Elkarlanerako txantiloiak koadernoak ordezkatzeko erabiliko dira. Txantiloiak inprimatu eta koaderno bat sortuko da: gelari dagozkion itemak profesionalak beteko dituzte eguna amaitzean, eta etxeko itemak gurasoek beteko dituzte. Eguneroko bete behar dira txantiloiak, horiek baitira profesionalen eta gurasoen arteko harremanerako eta informazio-trukaketarako bide bakarra, eta, modu horretan, bat egingo dute gurasoek eta profesionalak.

Ondorioak

Hezkuntzari dagokionez, komunikazioak irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuan prestakuntza-mezuak trukatzeari errazten digu. Hezkuntzaren benetako funtsa komunikazioa da. (Ramos, 2002, 37. or.).

Hezkuntza giza eskubide bat da, eta autismoa duten pertsonen ere hezkuntzarako eskubidea dute. Egia da, askotan, ez direla gizartearen parte izaten, baina beharrezkoa da uste okerrak baztertzeari. Ikastetxeetan, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek inklusioa lantzen ari da, baina gizartearen zati bati zaila suertatzen zaio gaia onartzea. Eta gizartearen parte direla geureganatu behar dugu.

Autismoa duten pertsonen ongizatea lortzeko bidean, oso garrantzitsua da familien eta profesionalen arteko komunikazioa. Horregatik, elkarlanerako txantiloak sortu ditugu, komunikazioa eraginkorrago izan dadin eta profesionalen informazio gehiago izan dezaten. Txantilo horiek komunikazioa eraginkorrago izateko erabiliko dira, bidea oraindik luzea izango den arren. Eta familien eta profesionalen arteko komunikazio horretan, gizarte-hezitzailearen papera ezinbestekoa izango da, bitartekari moduan lan egiteko eta komunikazio-arazoari irtenbidea bilatzeko.

Erreferentzia bibliografikoak

- ARPAL SALVADOR, E. (2019). La educación social en la escuela desde el punto de vista de los profesionales de la educación social. *Educación Social. Revista d'Intervenció Socioeducativa*, 71, 181-203.

- ARIKABERRI, M.; CABALLERO, M.; HUARTE, J.; TANCO, C.; BIURRUN, A.; ETAYO, Y.; & URDÁNIZ, S. (2013). Educadoras y Educadores Sociales en los centros educativos. *Revista de Educación Social RES*, 16, 1-17.

- HERNÁNDEZ, S. M. (2012). El educador social y la escuela. Justificación de la necesidad de la Educación Social en las escuelas. *RES: Revista de Educación Social*, (16), 4.

- MIGUEL, S. (2013). Autismo: Características e intervención educativa en la edad infantil. *Hemendik berres-*

kuratua [2020/04/25]: https://biblioteca.unirioja.es/tfe_e/TFE000368.pdf

- RAMOS, E. T. (2002). La comunicación educativa. Retos: nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación, (3), 37-43.

- SÁINZ MARTÍNEZ, A. (1998). Garapenaren nahaste orokortuak dituzten ikasleentzako gela egonkorren funtzionamendurako orientabideak. *Hemendik berreskuratua* [2020/04/20]: http://www.redined.mepsyd.es/xmlui/bitstream/handle/11162/119931/110019e_Doc_IDC_aulas_estables_e.pdf?sequence=1&isAllowed=y

- ZAGUIRRE, R. L. (2012). Las educadoras y los educadores sociales en centros escolares, en el estado Español. *RES: Revista de Educación Social*, (16), 2.

- UNESCO. (2019). Inclusión en la Educación. *Hemendik berreskuratua* [2020/05/18]: <https://es.unesco.org/themes/inclusion-educacion>

Autismoa duten pertsonen ongizatea lortzeko bidean, oso garrantzitsua da familien eta profesionalen arteko komunikazioa. Horregatik, elkarlanerako txantiloak sortu ditugu

ETXEA		
	POZIK	URDURI
IGERILEKUA		
PSIKOMOTRIZISTA		
PASEOA		
BESTELAKOAK (ospakizun bereziak, bisitak)		
HARREMANAK		
Familiarekin jolastu du?	Bai	
	Ez	
Familiarekin bururatu da?	Bai	
	Ez	
LOA		
Gau osoa jarraian	Bai	
	Ez	
Tarteka esnatu da	Bai	
	Ez	
Lo hartzea kosta zaio	Bai	
	Ez	
Goiz esnatu da	Bai	
	Ez	
WC		
Kaka egin du?	Bai	
	Ez	
BESTELAKOAK		
ABISUAK ETA ESKARIAK		

2. taula

AHALDUNTZE ESKOLA

BIDEA, GURE BAITAN DITUGUN DOHAINAK ATERATZEN UZTEA DA

Jesus Maria Mata: “Munduak irtenbidea izango du hezitzaileak zaintzen baditugu”

Azkar bizi gara gaur egun. Azkarregi. Eta, normalean, beti kanporantz begira. Abiadura moteltzeko eta barrura begiratzeko gonbidapena egin digu Jesus Maria Matak. Informatikaria ofizios, barnekotasuna lantzeko NIGAN proiektua sortu du eta tailerrak eta prestakuntza saioak eskaintzen dizkie gaztetxoei, gurasoei zein irakasleei. Irteera barrurantz begiratuta topatuko dugula dio Matak, eta ezinbestekoa dela gure barne-mundua modu egokian kudeatzea.

Noiz hasi zinen barnekotasuna lantzen?

Gure semeak txikiak zirenean hasi ginen honekin, duela hamabost urte inguru. Bikotea eta biok pentsatzen hasi ginen ea nola landuko genuen alderdi emozionala haiekin, baina horrekin batera ikusi genuen semeekin soilik lantzea motz geratzen zela, eta hori guztia komunitatera zabaldu behar genuela. Antzuolakoak gara, herri txikia da gurea, eta komunitate sentipen handia dugu. Barnekotasuna lantzeko saioak antolatzen hasi ginen eta sorpresa handia hartu genuen, jende asko animatu baitzen parte hartzera.

Zer adineko gaztetxoekin aritzen zarete lanean?

Lehen Hezkuntzako 6. mailan dauden neska-mutilekin aritzen gara, urtebetez, eta hogeitasei inguru egiten ditugu. Baina gurasoek barnekotasuna lantzea interesgarria zela ikusita, eskaintza haiei ere zabaltzea erabaki genuen. Orditik aurrera, gurasoak soilik ez, herriko eta bailarako jendea ere etortzen hasi zen eta gaur egun helduentzako bi talde ditugu.

NIGAN izeneko proiektua sortu

zenuen, hain zuzen ere, barnekotasuna lantzeko.

Bai. Barrura begiratzeko beharra ikusten genuen eta hortik datorkio izena. Gizarteak kanpora begiratzera garamatza, etengabe gauzak egitera eta denbora ekintzekin betetzera. Hori guztia oso ongi dago, baina barrura begiratzeko behar handia dugu. Barnekotasuna meditazio praktikaren bidez lantzen dugu. Isiltasunean egonez, batez ere. Hainbat dinamika eta jolas ere egiten ditugu, baina, isiltasuna da ardatza. Honekin guztiarekin hasi ginenean konturatu ginen gaztetxoek ere sekulako gogoia eta beharra dutela isiltasunean egoteko. Ordu laurdenez egoten dira, erlaxatuta eta oso gustura. Gainera, tresna modura barneratzen dute eta estres egoeren aurrean erabiltzen dute. Antzuolako eskolan, adibidez, ez dute azterketarik egiten baina gero, Bergarara joaten direnean bai, egiten dituzte, eta lehengoan esan zidan gaztetxo batek azterketa egin aurretik elkartzeko direla, “sintonia” egiten dutela (guk erakutsitako meditazio-praktika bat da) eta ondoren sartzen direla gelara azterketa egitera. Horregatik soilik, merezi du egiten dugun lanak.

Zer da zehazki lantzen duzuen?

Barnekotasuna kudeatzerakoan hiru alderdi bereizten ditugu: lehenik, ea zer egiten dugun geure pentsamenduekin. Zentzu horretan, meditazioarekin eta mindfulness-arekin esperimentatu duguna oso aberatsa izan da. Bigarrenik, adimen emozionala dugu. Hainbat ikastetxetan lantzen dute, baina gerora ez du jarraipenik izaten. Eta, hirugarrenik, dimentsio sakona dago: geure izatea bera, geure garena. Hori oso garrantzitsua da guretzat. Pentsatzen duguna eta sentitzen duguna baino askoz ere gehiago baikara. Adibidez, maitatzeko dugun gaitasuna ikaragarri handia da baina ez gara konturatzen barnean dugun horretaz, ez gara kontziente. Gure barnean dagoen hori ikusten badugu, indartzen badugu eta barneratzen badugu, bizitza zeharo aldatzen da.

Bestalde, orain egiten ari garen tailer batean esperimentatzen ari gara esker onez bizitza zeinen efektu ona duen. Bizitzak uneoro opari ederrak egiten dizkigula, bizirik egotea bera opari ederra dela, gure ondoan pertsona zoragarriak ditugula eta natura eskura dugula ikusten dugunean, dena aldatzen da. Eta marketingaren industriatik dato-

zen mezuak gerarazi egiten ditugu. Zeren beharrak sortzen dizkigute, eta hainbat gauza edukita zoriontsuagoak izango garela sinestarazten digute, baina ez da egia. Munduak irtenbidea izango du barrura begira jartzen bagara. Bestela kontsumismo hutsean biziko gara.

Abiadura bizian bizi gara, denera iritsi ezinik eta egotea zer den ahaztu zaigula dirudi. Luzaroan eutsi al diezaiokegu bizimodu horri?

Aldatzen joan beharko dugu zeren horrela ez goaz inora. Barrutik apurtuta geratzen gara. Hamsterrak bezala egoten gara gurpilean jira eta bira, korrika, eta hori ez da irtenbidea. Irtenbidea barruan dago, ez dago kanpoan. Oso garrantzitsua da nork bere burua ezagutzea, bizitza gozatzeko eta bere osotasunean bizitzeko. Gelditzea, begiratzea eta gozatea da gakoa. Ardo dastaketak egiten direnean, adibidez, ardoa kopa berezi batean ateratzen dute. Lehenik kolorea begiratzeko esaten dizute, gero usaintzeko eta pixka bat probatzeko, ondoren zaporea hartzeko ardoa mingainean izateko... Eta zure arreta osoa horretan dago. Hori da bizitza dastatzea.

Barnekotasuna lantzeko saioetan parte hartu ondoren aldatzen al dira helduen eta gaztetxoek arteko harremanak?

Batez ere, nork bere buruarekin duen harremana aldatzen da, eta jendeak bizitzeko beste modu bat dagoela ikusten du. Barnekotasunari esker, barrutik zeinen ongi eginak gauden ikus dezakegu; gure barneko indarra ikusten dugu eta bizitza bere osotasunean bizitzeko aukera ematen digu. Indar hori ikustean, erresilientziak jokatzeko dugu, maitagarriago gara, eta bizitzaz gozatzeko gaitasun handiagoa dugula ikusten dugu. Norbera aldatzen da, eta hori denean islatzen da.

Begirada aldatzen da. Gaur egun, uneoro gauzak egin behar ditugula esaten digu gizarteak: egin, egin eta egin. Gabezia asko ditugula esaten digu, eta horiek betetzeko erosi eta erosi egin behar dugula. Baina benetako bizitza ez da hori: benetako



bizitza lasai egotea eta dugunarekin gozatea da. Bestela, gizarteak sortu dizkigun beharrak asetu nahian bizi gara eta asetzen ez ditugunean etsipena sentitzen dugu. Zoriona kanpoan dagoela uste dugu baina dena geure barnean dago; irtenbidea geure barnean dago. Eta bizitza bere osotasunean bizitzeko barne-begirada hori landu behar dugu.

Irakasleei ere prestakuntza saioak eskaintzen dizkiezue.

Bai, hezitzaileak zaindu behar ditugula uste dut. Baina nola? Bada, helburua da, hezitzaileek euren baitan dituzten altxorak ikustea, horiek egunerokoan erabil ditzaten. Ez da zaila; ausartzea da kontua. Eta, emaitzak, bizitza alda diezazuke behin betiko. Bide horretan gaude: ikastetxeetara joaten ari gara saioak eskaintzera. Arizmendi ikastolan adibidez, halako proiektu bat abiatu

genuen. Duela lau urte hasi ziren GPS (Garapen Pertsonalerako Saioak) deitu zuten proiektuarekin eta bertan aholkulari gisa ari naiz. Antzuolako eskolan ere hilean behin egiten dituzten prestakuntza saioak irakasleekin. Euskal Herriko hainbat ikastetxetan abiatu dira jada halako egitasmoak. Irakasleak ongi egotea funtsezkoa da eta helburua beren ongizatea sakonduko duten tresnak eskaintzea da. Hezitzaileak zaindu egin behar ditugu: bai irakasleak eta baita gurasoak ere. Izan ere, munduak irtenbidea izango du hezitzaileak zaintzen baditugu. Betiko galdera da: Nork zaintzen du hezitzailea? Eta nola? Eta helburua ez da gero haiek ikasleei hori guztia irakastea. Izan ere, hau ez da irakasten, bizi egiten da. Benetan balio duena esperientzia da eta hezitzaileak ongi baldin badaude, haurrek ere hori jasoko dute.

GALDEIDAZU

ZERGATIK ETA NOLA EUTSI FILOSOFIARI LHN, DBHN ETA BATXILERGOAN?

U lertuko duzue etxean bezala sentitzen garela Galdeidazue atalean. Galdera da gure lurralde libre bakarra. Baina bidean, momenturen batean, ahaztu genuen jatorrian galderak garela, garatu ditugun pentsamendu eta bizi-pen modu guztien bitartez erantzuten saiatzen garen galderak. Filosofiaren barnean geure buruari zer eta zergatik galdetzen diogunean, ingurura begiratu besterik ez dugu, zorroa argudioz betetzeko. Etorkizun latza duelako hausnarketarako ohitura eta gaitasuna galtzen ari den gizarte batek. Geuk ez dugu filosofia salbatu behar, filosofia-kiak lagundu gaitzake geure burua salbatzen. Barka iezaguzue hizkera mesianikoa.

Baina zer da filosofia? Zein dira haren onurak? Aise azaldu daiteke kontua bidegabekeria historikoei aurre egiteko puri-purian dagoen metafora batekin; hau da, hainbat gairen gainean arreta berezia jartzea ahalbidetzen diguten koloretako beturrekoen metaforarekin. Filosofiaren beturrekoek ez dute kolorerik, ordea; graduatuak dira gureak. Gaia edozein delarik ere, arreta, kritikotasuna eta argudiatzea bultzatzen duten antiojoak dira, funtsean. Egunerokoaren zurrunbiloak miope bihurtzen gaituelako guztiok, konspiranoikokeriari jausi gabe, itsu nahi gaituztenak ahaztu gabe.



MAITANE NEREKAN
Agora Filosofia Elkarteko
lehendakaria

IMANOL ALVAREZ
Jakinmin Elkarteko
lehendakaria



Artikulu hau idazteko gonbidapenarekin batera, bi galdera ardatz hartzea proposatu ziguten: “Zergatik filosofia?” eta “nola filosofia?”. Sinplea eta oso egokia. Filosofiak hausnarketa-gaitasuna bultzatzeko indarra duelako, beste edozein ikasgaik baino gehiago. Filosofiari eusteko edozein moduk ez du bermatuko, ordea, pentsamendu kritiko eta konplexua garatuko denik. Paralelismoekin jarraituz, pentsamendu dogmatikoaren aurkako botika da gurea. Baina, azken finean, medikuen eskuetan utzi beharreko kontua da zein botika, noiz eta nola hartu. Hain zuzen ere, gure artean ere desadostasunak daudelako, geroago azalduko dugun filosofia ulertzeko modu jakin bat aldarrikatzen dugula aurreratzen dugu. Disidentzia eta argudiatutako elkarrizketarako gaitasuna direlako prebentziorako osasun-planik onena.

Errealitatea datuetan

Espainiako Hezkuntza Ministerioak curriculumari buruz planteatu berri dituen dekretu-proposamenetan nabarmen murrizten dira kritika autonomoaren eta pentsamendu konplexuaren egonkortzeari begira beren-beregi diseinatutako espazioak: Balio Etikoak ikasgaia kenduko dute DBHko 3. mailatik, orduak murriztu Batxilergoko Filosofia eta Filosofiaren Historia ikasgaiei, desagerrarazi

DBHko 4. mailako Filosofia hautazkoa, eta kendu Psikologia hautazko ikasgaia Batxilergotik. Aipatzekoa da, halaber, Lehen Hezkuntza osoan, hausnarketa etiko-filosofikora bideratutako espazioa 3. zikloko maila batean soilik gorde dela. Hego Euskal Herriko erkidegoek Espainiako Ministerioak proposatutakoari men egiten badiote, hausnarketa etiko-filosofikoak honako espazio hau izango du, zenbakitan: % 0,55 LHn, % 0,83 DBHn eta % 5 Batxilergoan. Horiek horrela, gobernuak pentsamendu kritiko eta autonomia bermatuko zuela promestu bazuen ere, horixe da, hain zuzen, egingo ez duena. Hori ari zaigu gertatzen orain, eta, ildo horretatik, artikulu honen bidez ozenki eta aho batez eskatzen diegu Euskal Herriko hezkuntza-administrazioei hausnarketa jorratzearen alde ager daitezela, gizarteak behar-beharrezkoa baitu hori ongi funtzionatzeko.

Espainiako curriculum-proposamenek erabat baldintzatzen dute erkidegoen curriculum-diseinua, “minimoen” proposamenak badira ere, nahitaez betetzekoak baitira. Hala ere, badago tarterik eragiteko, eta Agora Elkartearen ezinbestekotzat jotzen dugu Filosofia, Balio Etikoak edo Psikologia ikasgaien espazioak duintzea, eta beharrezko denbora eskaintzea pentsamendu konplexua eta hausnarketa autonomia garatzeko eta egonkortzeko. Horretarako, alde batetik, Lehen Hezkuntza osoan, pentsamendu konplexua garatzeari lekua utzi behar diogu: umeei berezkoa duten hausnarketarako gaitasunari lekua egin, eta oinarri sistematizatua eman behar diogu. Bestetik, Bigarren Hezkuntzan, identitatearen eraikuntzan bete-betean dauden gazteek hausnarketa etiko-filosofikorako espazioa izango dutela bermatu behar da.

Zertarako filosofia?

Zertarako balio die Filosofiak euskal ikasleei eta euskal gizarteari? Agora Filosofia Elkartearen zuzenean elkarri eragiten dioten eta Filosofiaren defentsa justifikatzen duten hiru faktore ikusten ditugu. Alde batetik, curriculumaren mezuaren eta garapenaren arteko inkoherentzia. Mahai gainean daude kompetentzien arabe-

rako proposamen pedagogikoak, eta inor gutxik jartzen du zalantzan salto kualitatibo hori emateko beharra, nahiz eta euskal ikastetxe gehienetan, orain arte, benetako inplementazio errealik ez izan. LOMLOE Espainiako legearen harira aurkeztutako curriculum-proposamenean “kompetentzia pertsonal, sozial eta ikasten ikastekoa” eta “herritartasunerako kompetentzia” dira giltzarri jotzen dituzten zortzi kompetentzietako bi. Horiek garatzeko, ezinbestekoa da Filosofiari lekua egitea; ez hainbeste pentsamenduaren historiari edo ikuspuntu akademikotik, gizarte zein banako gisa garatzeko ezinbestekoak ditugun galderen, kontzeptuen eta praktika dialektikoen multzo gisa ulertzetik baizik. Esan barik doa, orobat, hain garrantzitsuak diren hizkuntza-kompetentziak garatzeko ere, eginkizun garrantzitsua bete dezaketela Filosofiarekin lotutako ikasgaiek.

Curriculumari buruzko azken proposamenek leku handiegia ematen diote ekoiztera bideratutako guztiari. Baina, oinarriko hezkuntzaz ari garela, munduan egoteaz hitz egin behar dugu, egiteaz hitz egin beharrean soilik; hartara, non kokatzen garen eta nola kokatzen garen jakiteko, ezinbestekoa da mundua eta gure burua interpretatzeko tresnak edukitzea. Filosofiak azken bi mila urteak eman ditu unibertsoa eta gizakia interpretatzeko jardunean.

Hezkuntzak (formalak zein ez-formalak) munduan kokatzeko tresnak ematen dizkigunean, formula honetako bigarren faktorerara pasako ginateke: euskal gizarte sendo, osasuntsu eta kohesionatua eraikitzeke, elkarbizitza posible egiteko, ezinbestekoa da gu geu munduan ongi kokatuta egotea, egonkor egotea. Mundua ikusteko nire betaurrekoak ongi graduatuak eta garbi badaude, hurbilera zein urrunera begiratu, fundamentuz ikusi ahal izango dut dena, errealitateari buruzko engainuetan erori gabe. XXI. mendean, inoiz baino handiagoa da betaurreko kritikoaren beharra, teknologia berriek, gehiegizko informazioak eta interes politiko-ekonomikoek etengabe aldatzen digutelako aurrean duguna. Horren aurrean, datorrena interpretatu eta haren aurrean po-

Oinarriko hezkuntzaz ari garela, munduan egoteaz hitz egin behar dugu, egiteaz hitz egin beharrean soilik; hartara, non kokatzen garen eta nola kokatzen garen jakiteko, ezinbestekoa da mundua eta gure burua interpretatzeko tresnak edukitzea. Filosofiak azken bi mila urteak eman ditu unibertsoa eta gizakia interpretatzeko jardunean.

sizioak hartzeko gaitasunak garatu behar ditugu.

Ez dugu ahaztu behar filosofatzearen helburu nagusietako bat bizitza zoriontsua izateko bideak arakatzela dela. Horra hirugarren faktorea (edo lehenengoa, gurpila nondik irakurtzen hasten garen): hezkuntza-tresna sendoak ematen badizkigu, eta gizarte osasuntsua eraikitzeke gai bagara, zoriontsuagoak izango ditugu komunitatea zein banakoak. Inguratzen gaituen errealitatea interpretatzen ez jakiteak ezinegon handia sortzen digu. Beste batzuen interpretazioen araberako bizimodua eramateak arrisku handiak dakartza, guretzat zein ekosistemarentzat. Kritika autonomoaren armak buruan ez baditugu, beste batzuek egindako interpretazio interesatuena arabera biziko gara. Filosofiak babes- tu egin behar gaitu horren aurrean.

Azkenik, filosofiak gozarazteko duen gaitasuna aldarrikatu nahi dugu.

Pentsamenduarekin jolastearen plazera, galderen erotismoa, hausnarketa kolektiboaren katarsia. Jakintzaren maitasunaz ari gara Filosofiaz ari garenean. Maitemindu ditzagun, beraz, Euskal Herriko ikasleak.

Filosofia nola landu behar den ulertzeko zenbait argibide: zer da elkarrizketa filosofikoa?

Sarreraren esan bezala, hau ez da filosofiaren aldarrikapen hutsa. Filosofia

ulertu eta egiteko modu bat aldarrikatzen ari gara, elkarrizketa filosofikoa oinarri duena, hain zuzen ere; haurrekin filosofia egitera bultzatzen gaituena, eta, nerabegarotik aurrera, filosofia egitea eta ikastea uztartzea proposatzen duena.

Munduan, haur-filosofiaren gaineko askotariko programak daude, baina ezaugarri komun bat dute denek: elkarrizketa filosofikoaren bidez lan egiten dute. Pizgailu ludiko batetik abiatuta —filosofikoki iradokitzailea den pizgailu batetik (arte, literatura, jolasa)—, gaiari buruzko galderak planteatuko ditugu, elkarrizketaren bidez eta modu kooperatiboan hausnarketa eraikitzeke. Maieutikaren ereduari jarraituz, parte-hartzaileak euren ideietan sakontzera bultzatzea da gidariaren eginkizuna, iritzirik eman gabe. Horretarako, arrazoiak, adibideak, kontra-adibideak eta esandakoaren ondorioak eskatzen dizkie ikasleei, besteak beste. Bestalde, elkarrizketa bakarriketen superposizioa bihurtu ez dadin, irakaslearen ardura da ikasleen parte-hartzeak erlazionatzea eta tresnak ematea, apurka-apurka eurek egin dezaten hori guztia. Helburua argia da: behin elkarrizketarako oinarrikoa den jarrera bermatuta eta elkar ulertzeko instrumentalak diren balioen garrantzia onartuta (arrazionaltasuna, koherentzia...), bakoitzak gai bati buruzko hausnarketa sakonak egitea, taldean eta modu kooperatiboan. Hori horrela, programa horiek, helburu filosofikoez gain, helburu soziala ere badute, haur-filosofiaren sortzaile Matthew Lipman-ek hasieratik aipatu zuen moduan.

Hurrengo bi puntuetan, geure filoso-

fia ulertzeko moduan garrantzitsuak diren hainbat kontzeptu aztertuko ditugu.

Zer da pentsamendu konplexua?

Pentsamendu konplexuaz hitz egin dugu artikuluan, baina zertaz ari gara zehazki kontzeptu hori erabiltzen dugunean? Pentsamendu konplexuak estrukturari eta sakontasunari egiten dio erreferentzia. Hausnarketa sakonak egiteko gaitasunari lotuta dago, eta hausnarketa horiek egituratuta daude.

Estrukturari dagokionez, kaleko hizkeran sen on kontzeptu gisa identifikatu dezakegunaz ari gara. Horren zehaztasun ezak kontzeptuak harrapaezina den ideia dela ematen du aditzera, baina uste dugu pentsamendu egituratua pentsamendu-abilezien bidez uler daitekeela. Are gehiago, gure ustez, pentsamendu-abilezia horiek lantzeak pentsatzeko gaitasuna handitzen du. Esan beharra dago, bestalde, pentsamendu-abilezia horiek ugariak eta askotarikoak direla, eta sarritan “kontraktat” jo ditzakegula. Horregatik, hain zuzen ere, horien guztien lanketak soilik ekarriko du pentsamendu orekatu eta integrala.

Baina zein dira pentsamendu konplexuaren disekzio hori osatzen duten pentsamendu-abileziak? Kataluniako haur-filosofiaren testuinguruan, Irene de Puig eta Angelica Sático adituek *Noria* programan sortutako sailkapena hartu dugu abiapuntutzat. Bost multzo handitan sailkatzen dira: hautemate-abileziak (behatzea, arretaz entzutea...), ikerketa-abileziak (hipotesiak egitea, irudikatzea, aukeren artean hautatzea, irtenbideak bilatzea...), kontzeptualizazio-abileziak (definitzea, adibideak eta kontra-adibideak ematea, alderatzea eta kontrastatzea...), arrazoinamendu-abileziak (arrazoiak bilatzea eta ematea, irizpideak ezartzea, kausak eta efektuak erlazionatzea, parteak eta osotasuna erlazionatzea...) eta itzulpen-abileziak (inprobisatzea, laburbiltzea...).

Jarrerekin eta balio etikoekin egin duten sailkapena ere oso interesgarria da. Zuzen pentsatzeak faktore etikoa barnean hartzen duela argudiatzen dute, eta bat gatoz ideia horrekin; baina dena ezin azal dezakegu lerro

hauetan. Iturrietara joz gero, errazago uler daiteke proposamena, gure iritziz. Baina erraz ulertzen da gorago aipaturiko pentsamendu-gaitasunak dituen pertsonak hausnarketa sakon eta egituratuak egiteko gaitasuna duela behintzat.

Zer da pentsamendu kritikoa eta autonomoa?

Lerrootan, askotan erabili ditugu pentsamendu kritikoa eta pentsamendu autonomo kontzeptuak. Baina zer esan nahi dugu horiekin? Pentsamendu kritikoa pentsamendu dogmatikoaren etsaia da, eta edozein ideia zalantza-aren bahetik igarotzea eskatzen du. Geuk sortua izan zein beste batek edo batzuek aurkeztua, beti egin behar dugu edozein ideia zalantza jartzeko ariketa, eta hauxe galdetu behar diogu geure buruari: “Eta aurrean dudan horrek arrazoiak balu?”. Ondoren, geure arrazoinamenduen jatorrietan sakontu behar dugu: “Zergatik pentsatzen dut pentsatzen dudana?”, “nondik dator nire ideia hau?”, “zein dira nire argudioak ideia horri eusteko?”. Metakognizio-ariketa horrek autonomia ematen digu, talde gisa edo banako gisa, gure bizitza gidatzen duten printzipio etiko-politikoak sendago egiten baititu. Pentsamendu filosofikoa pentsamendu kontzientea da: zer eta zergatik pentsatzen dudana jabetzea.

Horrez gain, pentsamendu kritikoa eta autonomoa beste bi ezaugarri gehituko dizkiogu: sortzailea eta arretatsua da. Ideietan sakontzen dugunean, saiatu behar dugu sormen-ariketa egiten. Edozein pentsamendu zalantzaren aurrean jarrita, sormen-ariketa egiten dugu, ideia berriak edo ideien arteko lotura berriak egiten ditugun heinean. Horrez gain, ezinbesteko jotzen dugu zaintza ere praktika filosofikoan sartzea, eta horregatik aipatzen dugu pentsamendu arretatsua. Gure ideien ondorioak aurreikustea garrantzitsua da, hau da, aurreikusi behar dugu zelan eragingo dieten ideiek parean eta inguruan ditugunei. Ariketa kontziente hori eginda, geure inguruko zaintza sakontzen ari gara, eta geure ideiak sendotzen, haien eraginaren norainokoa aurreikusi dugu-eta.

XXI. mendean, inoiz baino handiagoa da betaurreko kritikoen beharra, teknologia berriek, gehiegizko informazioak eta interes politiko-ekonomikoek etengabe aldatzen digutelako aurrean duguna.

ARGITALPENAK




TIK, BAKARRIK, TAK, IKARAK

Patxi Zubizarreta - Maite Gurrutxaga

IKASELKAR

Bat-batean, amona gaixotu egin dela eta, etxean bakarrik geratu dira bi anai-arreba. Bakar-bakarrik. Eta denborak aurrera egin ahala, beldurra areagotu egingo zaie. Tik, bakarrik, tak, ikarak. Orduan, beldurrari aurre egiteko trikimailuak jarriko dituzte martxan. Eta zeu bakarrik geldituko bazina, zer egingo zenuke? Nola sentituko zinateke?



DESIOA

Bernardo Atxaga - Mikel Valverde

PAMIELA

Ata Pank eta Ate Punky. Desioa liburuarekin datorkigu Bernardo Atxaga. Ata Pank eta Ate Punky bi ahate bitxi dira. Lotsagabeak, ahozikinak eta tontorroi samarrak dira biak. Haien gaiztakeria eta bihurrikeria guztiak irribarrez jarraituko ditu irakurle gazteak. Bi ahate bitxi! Bi harribitxi! Mikel Valverderenak dira ilustrazioak.




HARTZAÑO ESKOLARA DOA

Alain broutin - Frédéric Stehr

IKAS

Eskolara bidean, hartzañok hainbat animalia aurkitu ditu: basurdea, azeria, igela eta apoa. Haietako bakoitzak jarduera interesgarriren bat proposatu dio eta, hizketan eta jolasean hasi denez, eskolara berandu helduko da. Baina eskolatik kanpo ere ikasi al daiteke? Hartzañok baietz uste du: eskolaz kanpo ere gauza ugari ikas daitekeela.



KIMIKA

Jose Maria Etxabe Urbieto

UEU

Kimikak, bizi-kalitatean funtsezko papera betetzen duela azpimarratzen du *Kimika Lehen Hezkuntzako Graduko ikasleentzat eta irakasleentzat* liburuak. Herritarren alfabetizazio zientifikoa beharrezkoa dela dio Etxabek, baita pentamendu kritikoa garatzea ere, eta kimikari buruzko oinarritzko eredia eraikitzen laguntzeko ideiak proposatzen ditu.



ESNA IRAUTEKO IPUINAK

Xabier Olaso

DENON ARTEAN

Ipuin laburrak eta biziak biltzen ditu liburu honek, ipuin irudimentsuak eta iradokitzaileak, eta den-denak, esna irauteko ipuinak dira. Tradizioaren eta umorearen eskutik, askotariko eszenatokietan murgiltzeko aukera izango du irakurleak. Baina, hori bai, sekula ez du lo hartuko Xabier Olasok idatzitako liburua irakurtzen ari den bitartean.



BEHISUZKOA

Ines Sáenz de Pipaon - Raquel Samitier Castillón

EREIN

Behiak suzko entzierroan parte hartu nahi du, zezenak urtero-urtero egiten duen moduan. Eta baserriko lagunekin batera, bere esku dagoen guztia egingo du entzierroan korrika egiten utz diezaioten, horretarako arauak hautsi behar baditu ere. Zezenak bezala, lortuko ote du behiak ere entzierroan parte hartzea?

PROPOSAMENA

'Baginen bagara' erakusketa

Izan zirelako gara eta izango dira

'Baginen bagara. Emakume Artistak: ikusgarritasun(ez)aren logikak' izenburupean, helburu pedagogikoa daukan erakusketak 50 artistaren 120 lan inguru biltzen ditu Donostiako San Telmo museoan. Museoaren beraren funtsetako lanak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gordailukoak eta Kutxa Fundazioaren artelanak martxoaren 13a arte egongo dira ikusgai, bost atal dibulгатibotan banatuta. Haizea Barcenilla eta Garazi Ansa dira erakusketaren komisarioak.

Pintoreak, ehungileak, zeramikagileak, eskultoreak, ilustratzaileak, jostunak... Izan beti izan dira sorkuntzan lan egin duten emakumeak. Baina horietatik zenbat aitortu ditu Artearen Historiak? Zergatik ez da kontsideratu "arte" emakumeen sormen-lana? Zergatik ez ditu lehen mailakotzat hartu? Galdera horietan sakontzeko parada eskaintzen du San Telmo museoak martxoaren 13a arte ikusgai daukan *Baginen bagara. Emakume artistak: ikusgarritasun(ez)aren logikak* erakusketak.

Haizea Barcenilla eta Garazi Ansa EHuko Arte Ederretako Fakultateko irakasleak dira erakusketaren komisarioak. Eta San Telmo museoak egindako eskari bati erantzunez taxutu dute erakusketa: museoak, berdintasuna bere lan ildoetako bat

izanik, aztertu eta bildu nahi zuen nolako presentzia eta garrantzia zuen emakumeek egindako arteak museoaren beraren bildumetan. Ikerketa esparrua San Telmo museoaren funtsetatik harago zabaldu zuten komisarioek, Gipuzkoako Foru Aldundiaren bildumetan emakume artisten lanek duten presentzia hausnartzera iritsi dira, gisa horretan. Azkenik, Kutxa Fundazioaren hainbat lan ere batu zaizkio bildumari, eta beraz, emakumeen lanek duten presentzia eta haien tratamendua aztertzeko lagin zabala ikertu eta ikusgai jarri dute museoan hiru bildumetako 120 arte-lan inguru bilduz.

Euskal Herriko artistak dira ikusgai dauden gehienak, baina badira hainbat europarren lanak ere: Catharina Ykens belgikarraren XVII. mendeko olio-pintura bat, Hélène Feillet eta

Blanche Hennebutte frantziarren XIX. mendeko litografiak, esate baterako, edo Cristina Iglesiasen 1998ko grabatu bat edota Ainize Txopitea donostiarraren iazko serigrafia bat ikusteko aukera dago. Pinturak dira nagusi, baina badira, eskulturak, grabatuak eta formatu berriagotako lanak ere.

Bi urteko ikerketa lana egin dute komisarioek, eta oroz gain, oraindik egiteke dagoen lanaren dimentsioaz ohartzeko balio izan die ikerketak, Haizea Barcenillaren arabera: "Asko dira bildutako artistak, baina inolaz ere ez denak. Orain pixka bat gehiago ezagutzen ditugu, baina sakonean, gutxi; hain gutxi ikertuak izan dira, sekulako ahalegina eskatzen du".


Luzea da ikusezintasunetik atera eta San Telmon ikusgai jarri dituzten artisten zerrenda: Rosa Valverde,



Maite Rocandio, Inocencia Arangoa, Victoria Malinowska, Marta Cardenas, Dora Salazar, Irene Lafitte, Itziar Okariz... Handia baita erakusketa. Bost atal nagusitan egituratu dute: *Baginen* (museoek eta euren bildumek arte sisteman betetzen duten rolaz eta funtzioaz gogoeta egiteko baliatu duten atala, eta informazio teoriko gehien biltzen duena da); *Emakumeen presentzia* (autoerrepresentazioari eta gorputzari lotutako obrak daude ikusgai, besteak beste Esther Ferrerrenak); *Sistemaren arauak* (historiografiak eta kritikak emakumezkoen lanak irakurtzeko

erabili izan dituen hainbat kategorizazio aztertu dituzte femenino eta maskulino, esatera baterako); *Historiografia berrien saiakerak* (1970-80ko figurazioetatik abiatuta, lerro berriak proposatu dituzte). Eta bukatzeko, *Bagara* deituriko bideo-elkarrizketa dago ikusgai.

Hezkuntza zuzenean zein zeharka etengabe zirikatzen duen erakusketa da. Ikusle gisa jaso izan dugun arte hezkuntzaz eta canona nola eraiki den hausnartzera garamatzalako alde batetik, eta bestetik, artista emakumezkoek eurek jaso izan duten arte hezkuntza ere ezbaian jartzen du.



'Baginen bagara. Emakume Artistak: ikusgarritasun(ze)aren logikak' erakusketa

Lekua: Donostiako San Telmo museoa.
www.santelmomuseoa.eus

Komisarioak: Haizea Barcenilla eta Garazi Ansa.

Ikastetxeentzako:

- Irakasleek doako sarrera dute museora, eta, baita ere, 26 urtez azpiko pertsonak, ikasleek barne.
- Hezkuntza zentroek doan erabil dezakete museoko hezkuntza tailerra museora bisita bat erreserbatzearekin.
- Museoak aldi baterako erakusketaren inguruko material didaktikoa dauka. Eskatzeko: stm_erreserbak@donostia.eus.

Audiogida:

Museoaren app-ean *Baginen bagara* ibilbidea gehitu dute, bisitari bakoitzak bere gailua erabilia bisita audiogidaz lagunduta egiteko aukera izan dezan. Testuak irakurri eta entzun egin daitezke.

Museoaren hezkuntza eskaintza:

- Haur Hezkuntza: *Museoa sentitu* programa.
- Lehen Hezkuntza: *Museoa Gozatu*.
- Bigarren Hezkuntza: *Museoa amestu*.
- Batxilergoa eta helduentzako hezkuntza: *Museoa bizi*

ATZEKO ATETIK



ILUNTASUNETIK ARGITASUNERANTZ

ZURAIDE TELLETXEA ZUBELDIA
IRUNGO TOKI ALAI INSTITUTUKO
DBH3-KO IKASLEA

Hezkideztaren inguruko saioak izaten ditugu maiz: hitzaldiak, jolasak, ekitaldiak... Baina tristeza egiten zait, ikasle naizen aldetik, klasean emandako horrek ezertarako balio ez duela ikustea. Badirudi denok daki-gula zer dagoen ongi eta zer gaizki, elkar errespetatu behar dugula, gure eskubideak oinarrizkoak direla eta haiengatik borrokatu behar dugula... Baina, zoritxarrez, nire inguruan behintzat, hori ez da errealitatea.

Gelako lau paretetatik atera eta emakumea gutxiesten jarraitzen dugu: Instagramera bere argazkiak igotzen dituen neska gaztea kritikatzan hasten gara; onartua dagoena baina haragi pixka bat gehiago erakustearekin bat hasten dira begiradak eta txutxu-mutxuak; gorputza gustatzen ez bazaie, modu desegokian esateko eskubideak dutela uste dutenak ere badaude; beldurra pasatzen jarraitzen dugu:

nire lagunek autobusa hartzen jarraitzen dute etxera bakarrik ez joateko, kalean bakarrik noala giltzak prest edukitzen ditut badaezpada...

Momentu horietan guztietan aurrerapausorik ez dugula eman sentitzen dut, nazka ematen dit horrelako gizarte baten parte izateak eta bertan bizitzeak. Horrelako egoerak ikustean amorrurak garaitzen nau, beti beldurrez bizi behar izateaz nekatuta nago. Nire buruari askotan galdetzen diot ea noiz bukatuko ote den hau... Zoritxarrez, ez dut erantzunik eta edukiko banu ere ziur nago ez litzaidakeela batere gustatuko.

Bitartean, aurrera begira, nire inguruan gure esku dagoen guztia egiten jarraitzea gustatuko litzaidake. Soinetako irakasleari edozein mutilek baina gaitasun gutxiagorik ez dugula argi utziko diogu eta jolas-garaian neska gehiago ikusiko ditugu futboleko jokatzan. Urteetan

zehar emakume askok isilpean egin duten lan guztia argira aterako dugu ikasgaietako curriculumetan, hezkuntzan eredu femenino gehiago behar baititugu, eta haien lana baloratu, denbora luzez gutxietsia izan baita. Testu-liburuetan edo ikasmaterialetan ager daitezkeen emakumeen irudi umiliagarriak salatuko eta baztertuko ditugu. Herriko kaleak historian zehar borrokatu duten emakumeen izenez beteko ditugu, haietan ibiltzerakoan beldurra pixkanaka gutxitzen joan dadin, indarkeria sexistak ez du bertan lekurik izango, hala, behingoz eta betiko, libre izan gaitezen.

Argi daukat hezkidetzari dagokionez hutsune handia dudala nire egunerokoan, maila teorikotik praktikara pasatzeko garaia badela, eta ez dugula etsiko, erre ezin izan zizutzen sorginen oinordeak baikara gu, ikasleok; baita zuek ere, gurasoak eta irakasleak.



Uri



Josu



Carmen



Alfonso



Fermín



Felisa

Irakasleak dira. Eta euren lanarekin, konpromisoarekin eta kalitatezko hezkuntzaren aldeko grinarekin bizitza osorako oroitzapena utzi zieten Anneri, Axiri, Totiri, Andoniri, Africari eta Pedro Migueli. Atzoko, gaurko eta biharko irakasleak.

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

STEAM Euskadi Sariak 2021

STEAM Hezkuntzak zientzia, teknologia, ingeniari eta matematika arloetako bokazioak sustatzen ditu, eta ikasleen prestakuntza zientifikoa eta teknologikoa hobetzen ditu.

Beraz, zuen ikastetxeak edo erakundeak STEAM Hezkuntzako proiekturen bat garatzen badu, zuen hautagaitza aurkeztu dezakezue.



1. KATEGORIA

Ikastetxeek sustatutako STEAM Hezkuntzako ekimen berritzaileena

1. saria. 3.000 €

2. saria. 2.000 €

Aipamen berezia genero ikuspegiari. 1.000 €

2. KATEGORIA

Beste erakunde batzuek sustatutako STEAM Hezkuntzako ekimen berritzaileena

1. saria. 3.000 €

2. saria. 2.000 €

Aipamen berezia genero ikuspegiari. 1.000 €

Zuen hautagaitza 2022ko urtarrilaren 31 arte aurkez dezakezue

INFORMAZIO GUZTIA:
www.steam.eus/sariak



- Science
- Technology
- Engineering
- Arts
- Mathematics